TTiPi-TTAPA

BAZTAN - BIDASOA - MALDA ERREKAKO ALDIZKARIA

1 9 8 6.ko Ekaina 16. z e n b.



EUSKARA
ASKATU
DEZAGUN !!

NON-ZER



2 .-Berriak.
Bera.
4 .-Etxalar.
6 .-Igantzi.
Arantza.
Lesaka.
8 .-Maldaerreka.
9 .-Zubieta.
13.-Ituren.
14.-Erasun.
15.-Elgorriaga.
Sunbilla.
16.-Narbarte.
17.-Baztan.
18.-Zugarramurdi.
20.-Maldaerreka eta Bortziriko A.E.K.
23.-Kaixo Natura, zer moduz zaude?
24.-EHNE-Nafarroa
Nekazal Sindikato berri bat.
26.-Langabezia Beran, Elkarrizketa.
29.-Doneztebeko Pedagoji eztabaida.
32.-"Kepa eta Anjeleren" elkarrizketa.
33.-Emakumea.
34.-Cencerok, Doneztebeko rock taldea.
36.-S.O.S.
37.-Gutuna.
38.-Hauteskundeak direla eta...
40.-Udalak galdu, Diputazioak irabazi eta Herria ahuldu...
42.-"Venite Adoremus"
44.-Amatasunarako aholkuak.
45.-Ipuina, "Haur espiritua".
46.-Nafarroako Bertsolari Txapelketa.
48.-Olerkia, "Aingeru beltza".

Azala: Paulo.

TTIPI-TTAPAKO HARPIDEDUN IZAN ZAITEZ!

IZEN DEITURAK _____
HELBIDEA _____
TELEFONOA _____
HERRIA _____
PROBINTZIA _____
BANKU EDO AURREZKI KUTXA _____
SUKURTSALA _____
ZENBAKIA _____

SINADURA

URTERAKO HARPIDETZA 1.000 PZTA.

Helbidea: Euskalduna ostatua.
BERA. NAFARROA.

BERA

●DIRU LAGUNTZA. Nafar Gobernuko Nekazaritza eta Abel Hazkuntzarako Departamentuak, diru laguntza ematea erabaki du Gonzalo Errandonea (Malaustekoa) eta Gorostipalako Esteban Errandoneari.

●BIZTANLEGOA ZAHARTZEN. Nafarroan aurten 522.383 biztanle bagara, joan den urtean baino 2.000 gehiago. Ez da horrela gertatu Bidasoa bazterretako zonaldean, joan den urtean baino guttiago baigara.Bakarrik Beran 13 gehiago, totalean 3.617; Baztanen 8.365, 22 iaz baino guttiago, Lesakan 3.053, 21 guttiago, eta Donezteben 1.114 joan den urtean bezala.

●IKASKETAK EUSKARAZ JARRAITZEA. 86-87 kurtsurako, Oronotzeko institutoan euskaraz irakasiko da. Honela adierazi du Guillermo Herrerok, Nafar Gobernuko Hezkuntza eta Kultura departamendukoa, Berako irakasle Patxi San Juani, apirilaren 12an idatzitako eskutitza batean. Bai, euskarazko linea hau BUPeko lehen kurtsuan eramango da, bakarrik gaztelera, erdal hizkuntzak eta gimnasia erdaraz irakasiko direlarik; erlijioa ere euskaraz irakasteko, artzapezpikoari, behar den irakaslea eskatzea erabaki dute. Berako eta Elizondoko Lanbide Eskoletan, lehen kurtsuan, guttienez 3 gai euskaraz irakasiko dire. Eskutitz honetan ere erraten da 20 lagun bederen direla behar projektu hau aintzinera eteratzeko.

●LARUN MENDI TALDEAK ekainaren hamabortzean Aiako Harrietara egin zuen aurtengo azkeneko irteera. Ondoren bazkaria, Ikastolan, urtean zehar parte hartu zutenekin. Aurten egin dituzten ibilaldiak aipatu ziren: Larun, Askain, San Anton, Kopakarri, Saioa, Bianditz Elizondo, Senpere, Mendaur etab. Heldu den ikastaroaren hasieran jarraitzeko asmoa dute. Berriro ere adierazi nahi dutena zera da: taldea irekita dagoela parte hartu nahi duten guztientzat.

●ADIXKIDETASUNAREN TXAPELKETA.

Oreretako 2 ekipo, Oiartzungoak, Hondarribikoak, Irungoak eta Gure Txokoa, parte hartu zuten joan den Apirilan 19 eta 20an Futboleko Adiskidetasunaren Txapelketan, Real Union geratu zen txapeldun, Beratarrak bigarren gelditu zirelarik. Nahiz eta denborak ez lagundu jende aunitz bildu zen; finalaren aintzinetik Gure Txokoako dantzari ttikiak, Makil Dantza eta Aurreskua dantzatu zuten.

●BERAKO LANBIDE ESKOLAN heldu den kurtsurako matrikula irekia egon da Ekainaren 7raino. Bigarren epe bat irailan irekiko da. Irakasiko diren gaiak: elektrizitatea, mekanika eta administraria. 2. mailako irakaskutzan: elektromekanika, eta informatika. Ia bukatzen ari den kurtsu honetan 214 ikasle eta 17 irakasle baldin badaude, datorren kurtsurako 260 ikasle eta 20 irakasle izango dire. Eskola honek eskeintzen ditu bertze zerbitzuen artean: autobusak (lehen mailakoentzako dohainik eta beken bidez, bere gostaria baino merkeago bigarren mailakoentzako), jangela eta 25 neskentzat logelak. Bekak eskatzeko tramiteak eskolan bertan egiten dituzte.

●LUR PARTIKULARRETAN ARBOLAK LANDATZEKO Nafar Gobernuak garrantzizko diru laguntzak ematen ditu. Laguntza hauek, batez ere joan den urtean hormatutako pinadientzako da, baina bada baita bertako zuhaitz motaentzako (landaketa berriaren gostariaren erdia).
Bi milioi pzta. hartu dezake jabe bakoitzak ordaina eperik gabe eginen delarik.



●NAFARROAKO BERTSOLARIEN LAGUNAK, antolatu dute Nafarroako Haur Bertsopaper Lehiaketa. Ikastetxetako haurrek lanak bidali zituzten eta haietatik 130 bertso hoberenak hautatuak izan ziren. Ekainaren 6an Iruñeara joan ziren San Fermin ikastolan egin zen jaialdira. Egun horretan Gipuzkoako bertsolari gaztetxoek ongi etorria eman zieten nafarrei. Saioaren ondotik sariak Nafar Gobernu, Bertsolarien Lagunak eta Nafarroako Ikastolen ordezkarien eskuetatik banatu ziren. Ondotik bazkaria eta Iruñean barrena ibilalditxo bat egin zuten. Agurra kantuz eman zuten San Fermin ikastolakoek. Hona jai honera, Beako ikastetxezein gonbidatuak ziren: Xabier Mikelperizena, Patrizia Arburua, Jaione Sein, Idoia Iturria, Angel Urtxegi, Lander Arburua, Arantxa Zelaieta, Julen Lekuona, Amaia Irazoki, Jaione Iraola, Kristina Boan, Jon Irazoki, Ricardo Abril eta Martzial Agirre.

Hona hemen haurrak egindako bertso pare bat, hauek Xabier Mikelperizenarenak:

Baserrian daukagu
txakur txiki arra
bizkar gainean duela
txuri beltza marra.
Txakur polita data
baina da zaharra
berak duen hobena
gehiegi indarra.

Txakur hau beti egon da
itxuraz meharra
erbitan ibiltzeko
sobera zaharra
Nik berriz irausteko
maisu aski txarra
horregatik heldu zait
begitik negarra.

●BERAKO FABRIKA ZAHARREAN (Fundiciones de Vera, S.A.) bi urterako komenioa egin dute. Jornalaren igoera %6a izan da, eta 2 puntu, 10 ordu guttiago eginen dire. Heldu den urterako 10 ordu guttiago eta bizia igotzen dena, jornaletan ere igoko da. Fabrika zaharrean 115 langile ari dire lanean. 5 langile hartu zituzten 6 hilabeterako, eta bertze 2 langile finko.

BERAKO UDALETXETIK

●Berako udalak entzun zuen Lesakakoak idatzi ziona, Berako barianteri buruz. Ez omen da Lesakako arau subsidiarioetan inon agertzen Alkaigan barianterik, eta arautegi hau baitzetsia denez gero, Berak dionez Berako Herriko Etxeak aipatzen duen bidea.

●Jose Mª Irazoki Etxegariek, jarrera hartzea eskatu dio udalari, Lizuniagako konplexu turistikoari buruz, nahi bada ere Larungo telesila aipatu gabe. Herriko Etxeak botazioa egin zuen, eta Senper eta Lasarteren etzezkoarekin, honako hau izan zen erresultatua: Lizuniagan, Larungo telesila, Herriko Etxearentzat betidanik zer ikusi garrantzitsua dauka konplexu turistikoarentzat. Horregatik, Nafar Gobernuari altzadako errekurtsoa paratzea erabaki du, arau subsidiarioetan telesila ere ager dadin.

●Erabaki da zein izango diren Lanbide Eskola eta Ricardo Baroja ikastetxeetan, udal ordezkariak: Jose Luis Lasarte izanen da Lanbide Eskolarako, eta Jose Luis Senper eskola publikarako.

●Herriko Etxeak Nafar Gobernuari eskatu dio, behar dena egin dezala, Fraingo errepikagailua indartzeko, honela Beran, Espainol Telebistaren 2.katea ongi ikus zezan.

●Joan den Apirilaren 9an, Udalak baitzetsi zuen Esperanza Aranibar gordelariak agertu zituen 1985ko kontuak. 95 milioi terdi bildu ziren eta ehun mila gehiago gastatu.

●Ez dago ados Berako Udala, Nafar Gobernuak erran duenarekin, Toki Onako bidea, oinezkoentzat bakarrik izatea, alegia. Horregatik rekurritu egin du.



ETXALAR

●XABIER REMON LIBRE.

Gehien poztu gaitun berria hauxe dugu: oraindik juizioaren esperoan egon arren, Xabier gure artean dago berriro. Eta pentsa zitekeen bezala, benetako algara sortu du hau jakiteak herri mailan. Erran behar baita, aprezio handia daukala jendeartean. Hori dela eta afari bat eginen da ongi etorria emateko ekainaren hamalauean. Hemendik ematen diogu ongi etorririk beroena. Animo eta aurrera. Geroa gure eskuetan dago.

●KULTUR EGUNAK

Maiatzaren 2, 3, 4 eta 11an ospatu ditugu Kultur Egunak, Etxalarko Kultur Taldeak antolaturik. Balantzea edo balorazioa egiterakoan, guztiz positiboa izan dela deritzogu. Ze arraio, herri ttikiotan jendea elkartzea holako ekintzak antolatzeko beti goraipatzekoa da. Eta zer erranik ez, lan hoien emaitza eta jendearengan sortu duten arrakasta ikusi ondoren. Bai noski, holako experientziak indarberritzen gaitu lanean jarraitzeko. Horra lau egun haietan bete zen programazioaren egitaraua:

Osasunari buruzko hitzaldi eta bideoarekin eman zitzaion hasiera Hurrengo egunean, larunbata, herri afaria egin zen. Martikorena abeslaria etorriko zelakoan ginen baina azken orduan deitu zuen ezin zuela azaldu adieraziz. Dena den jende anitz joan zen afaltzera, 8090. Igandean berriz, azken lau mendeetan Etxalarko etxe eta baserrien izenak jasan duten aldakuntza eta eboluzioaren berri ematen digun liburuxkaren aurkezpena eta ondoren diapositiba emanaldi bat: "Etxalar atzo eta gaur". Maiatzaren 11an eta kultur egun hauei amaiera emateko "Tasio" filmearen emanaldia.

●ALKATESAK MUXIN EGIN ZION KULTUR EGUNEI

Kultur egunak zirela medio, diru laguntza eskatu zioten antolatzaileek Udalari, aurrekontua bidaliz. Hortarako, eskaria egin eta Udaletxean sarrera eman ondoren, alkatesaren deia jaso zuten zera adieraziz: ez zuela eskari hura onartzen, euskara hutsez idatzia zegoelako.

Halere, Etxalarko 80 bizilagunek izenpetutako bertze eskari bat bidali zitzaion Udalari, euskarazko idazkiak onar ditzaten eta hemendik aurrera, herrian banatzen dituzten komunikatu guztiak euskaraz eta erdaraz egin ditzaten eskatuz.

Beraz firma bilketa hau, prestatzen ari den kanpaina luze baten lehen urratsa izan da. Helburua goian aipatutakoa da eta hortarako Kultur Taldea eta Herri Taldearen ahaleginak jarriko dira.

Hurrengo TtipiTtapan emango dizuegu zehaztasun gehiago.

●"FONDA JUANTXO"KO SUKALDEAK EZ DITU OINARRIZKO OSASUN BALDINTZAK BETETZEN.

Hirugarren aldiz adierazi dio jadanik albaiteroak "Fonda Juantxo"ko nagusiari, sukaldeak ez dituela oinarrizko kondizioak ere betetzen osasungarritasunari dagokionez. Dirudienez oso kondizio txarretan dago; kisuzko paretak, kea ateratzeko gailurik gabe eta nahiko zikina dena. Hori dela eta, alkatesarengana jo du Fonda honetako nagusiak, Herriko Etxeak sukaldea berritu diezaion eskatuz. Mementu honetan ez dakigu zein izanen den Herriko Etxearen erantzuna bainan badirudi, alkatesa eta Juantxo lagunminak direnez oso tratu berezia eta eskuzabala jasoko duela. Holako susmoak dabiltza.

●PINTADA BERRIAK.

Pintadetaz hitzegiterakoan, eduki ideologikoa dutenetaz ari gara, eta... benetan gauza bitxia da, azken aldi hontan gertatzen ari dena. Erran beharra da, orain arte behintzat, pintadak, bertze ahalmenik ez duten kolektibo, erakunde, marginatu, langile... azken batean herritar arruntek erabil dezaketen expresio bidea zela, komunikabide gehienak betikoen eskuetan daudenez. Orain aldiz, herri bazterreko paretak bezero aunitz dituzte. Berriak zeintzuk diren jakiteko ez dago inongo dudarik; bertan dauden guardiazibil probokatzaileak. Hauek ere pintadetaz baliatu nahi dute,

eta gainera euskaraz, beren zinismoaren iturriak agortezinak direla azpimarratuz. Bertzela ikus ezazue zeuek ; "Non dago Zabaltza?" zion pintadari horra zer erantzun dioten "Orbaizetako zimenterua!!"(?) ; "Xabier, Patxi askatu!!" zionaren ondoan hau jarri dute "Bi hiltzaile" eta bakearen usoa marraztu, "H.B." zion ondoan, "Hijos Bastardos" "Hermandad Borregos" ....e.a.

Egileak nortzuk diren argi dago, eta ez bakarrik euskara erabiltzerakoan ortografigramatika akats ugari egiten dituztelako, (horrek nabarmentzen du egileek ez dakitela euskaraz), baita ere erabiltzen duten sinbologiarengatik: bakearen usoa, buru hezurrak, gurutze gamatuak... e.a. Honen explikazioa ZEN Plangintzaren barruan datza, baita ere polizia eta G.Z.ek zenbait jendeekin indartu nahi dituzten harremanak. Horren bidez, nolabaiteko txibatolaguntzaile sare bat eratzeko asmotan dabiltza. Baina guzti honetaz hurrengoan hitz eginen dugu.

● ALKATESA HERRIKO ETXAREN ORDEZKARIA ESKOLAKO KONTSEILUAN.

"Consejo Escolar" edo Eskolako Kontseilua osatzerakoan sortu diren eztabaidak eta istiluak ditugu aipagai oraingoan. Dakizuenez, kontseilu hau gurasoen ordezkari batez, irakasleez eta Udalaren ordezkari batez osatzen da. Gurasoen ordezkaria Jabier Sansiñena dugu, bera izan baita hautatua botoen bidez.

Baina istiluak Udalaren ordezkaria hautatzerakoan sortu dira. Normalean eta bertze herrietan gertatu den bezala, Udalaren kultur ordezkari bat da kontseiluaren partaidea. Ez da horrela gertatu Etxalarren. Orain ere, alkatesaren maltzurkeria eta prepotentzia nagusitu dira. Bi Udalsesio behar izan dira hortarako. Hasieran, P. Ibarrak, M. Irigoieni (biak kultur ordezkariak) botoa emanen ziola adierazi arren, azkenean alkatesari eman zion. Modu horretan alkatesak lau boto jaso zituen eta M. Irigoienek hiru. Beraz, Teresa Sarobe izanen da Udalaren ordezkaria Eskolako Kontseiluan. Badirudi ere, Udaletxeko idazkariaren (secretario) jokaera ez dela arras garbia izan bere eginbeharrak betetzerakoan, joku bikoitza eginez eta informazio eta aholku zehatzik ez emanez, legeari dagokionez.

● NIKARAGUA ELKARTASUNA. Nikaragua elkartasuna, erasoen aurka eraiki lemapean, hitzaldia eta audiobisualak eman ziren maiatzaren 17-an. Ertamerikako egoeraz eta bereziki Nikaraguakoaz hitz egin zen, jende dexentek parte hartu zuelarik. Kanpaina honen helburua "asentamiento" edo ezarkuntza berri bat egiteko diru biltzea da.

IGANTZI

● Eskolako moldaketak bukatu dira eta erran digutenez hagitz politak gelditu omen dira. Lehen bi gela haundi eta bi txiki besterik ez ziren. Orain berriz 6 gela eder gelditu dira. Hala ere moldaketa honen berririk hoberena berogailu berria paratu dutela izan da, nere ustez. Nahiko hotz pasatuak gara txikitan oraingo haurrak ere berdin segitzeko.

● SAN JUAN XAR eguna ekainaren 24ean ospatuko da. Ohitura denez besta hau bezperan hasiko da su gainetik salto eta salto. Hurrengo egunean, goizeko 12 etan, meza izanen da eta ondotik jende guztia hiru iturrietara joanen da aurpegia garbitzera. Erraten dutenez ur honek larruko eritasunak sendatzen ditu.

● Igantziko biltoki elkarteak zaharrentzat besta bat antolatu du egun horretarako, egun alaitsu eta ederra pasa dezaten.

● BUP EUSKARAZ. Beharbada hau da ekartzen dizuegu berririk hoberena. Herriko bi neska, Jaione eta Patri, heldu den ikastaroa Euskaraz egin behar baitute. Igantzi, euskara egoera larrian bizi den herrian, holako erabaki bat hartzeak pozten gaitu. Zorionak biei.

ARANTZA

● ARANTZAKO ASTE BUKAERA KULTURALA

Joan den maiatzako lehendabiziko 4 egunetan ospatu da. Ortzegunean gaztetxoek futbito partidua izan zuten Berakoen kontra, aranaztarrek 6-3 irabazi zutelarik. Ortziralean EKBren eskutik "Euskararen egoeraz" hitzaldia izan zen. Larunbatean berriz EHNEkoek "Baserria eta Europako Elkarteari" buruz eman zuten hitzaldia; ondotik afaria izan zen. Igandean mendian barna ibilaldia izan zen, Ekaitzara; Senber Bordan bazkaltzeko. Txanbela taldeak kalejira eskeini zuen herriko karriketan, igande arratsaldean. Zoritxarrez, jende guti parte hartu zuen ekintza hauetan.

LESAKAKO UDALETXETIK:

● Lesakako Herriko Etxeak 84 milioietan aurtengo aurrekontua baitzetsi du. 15 egunez egon da tabloian zintzilik ikusi nahi zuenarentzat.

● Kontxita Erro izan da Herriko Etxeak hautatu duen zinegotzia, Irain eskolako Udal ordezkaria izateko.

● Berako bariantearen planoak, jendeak ikusteko moduan egon dire, eta norbaitek zerbait aipatu behar bazuen, alegatzeko epea ematen zen. Horrela egin dute Alkaigako bizilagunek, bariantea beren eremuen barna pasatzen delako. Lesakako Udalak alegazio hauek, eta berak egindako bertze alegazioa, Lesakako arau subsidiarioetan ez dela barianterik ageri, alegia, Nafar Gobernuari jakineraztea erabaki du.

● Udalak, osasun zentruaren bideetako eta futbol zelai berrirako komentu eta ospitalaren tarteko lurrak erosteko, Laminacionesekin tratua egitea erabaki du. Lesakako fabrikak, osasun zentrorako bideentzat lurrak, permutan emanen dituela jakinerazi du.

● Elias Garralda, izena duen Lesakar pintoreak, Udala gonbidatu du, berak Bilbon egin duen erakusketara. Baita opari egin du, Lesakako Udal liburutegirako, Rafael Manzano idatzitako liburu bat.

● Behintzat aurten Lesakan ez dira izanen asistente sozialarik. Horrela erantzun dio Nafar Gobernuak Lesakako Udalari, bere egunean azken honek egindako eskariari. Berandu dela diote, Herriko Etxeekin akordioak sinatuak daudelako.

LESAKA



● BERRIRO ERE BERTZE ATXILOKETAREN ISTORIOA.

Joan den apirilaren 3an, ortzegunа ilunabarrian, goardia zibilek herkidez jantzita, Iarnoz eta Agorreta irakasleak bizi diren etxea inguratu zuten, azken hau Nafarroako Mezkirizen atxilotua eta gero lixatua baten anaia izan zelako. Maisuak oporretan zeuden eta etziren etxean suertatu. Ondotik karrikan zebiltzenei agiriak eskatzen ibili ziren. Erran behar baita, nahiz eta aspaldidanik Irain ikastetxean lana egin. Patxi Agorreta, aurtengo otsailan Herriko Etxeak O.H.O.ko irakasle izendatu zuela.

Ondotik apirilak 9an Iruiñeako ospitaleen osabidean sartua zegoelarik atxilotu zuten.

Gelan kontu zuten inkomunikatua medikua eta enfermera ez bertzerik ikusi ahal ez zutelarik, nahiz eta familia eta Lesakako Udala bera saiatu izan. Bitartean kanpoan, eskoletan egunero protesta ekintzak egin ziren eta, Irain ikastetxean estrosada gau eta egun.

Igande arratsaldean Lesakan, Irain ikastetxean Bidasoa inguruko berrehunen bat lagun bildu ziren eta manifestazioan ateri. Enparantzara ailegatzean goardia zibilek tiroka sakabanatu zuten jendea. Ondotik goardia zibilek Lesakako zonalde haundi bat okupatu zuten, Herriko Etxe eta koartela inguruko bazterrak, gazte talde batzuekin istiluak sortu zituztelarik. Azkenean herriko goiko aldean, manifestazioa berriro egin zen eta Eusko Gudariak kantatuta bukatu.

Hurrengo astean, ospitalean, gela bertan epailearen aintzinean deklaratu ondotik, espetxeko ospitalera eraman zuten.
Apirilaren 27an igandea, arratsaldeko 7retan, Irain eskolatik aterita, Lesaka barrena manifestazio bat ixilik egin zen. Ekintzak Gobernadorearen baimena zuenez gero, inoiz baino jende gehiago bildu zen, nahiz eta denbora txarra izan, euria eta haizea ugari. Bortziriko ikastetxeko zuzendariak pankarta eraman zuten; eta manifestazioa bukatzeko, enparantzan idatzi bat irakurri zen. Idatzi hau "defensor del pueblo" izendatuari bidali zitzaion. Erran behar baita, karrika bazterretan goardia zibilak egon zirela, pasatzen zen manifestazioaren zain.

● ASTOPUTZA Lesakako kolektiboak rok jaialdian egindako diru zorrak oradaintzeko saldu duen zozketarekin diru nahiko bildu du eta pozik daude. Nahiz eta azken bolaxka honetan nahiko bakoitza bere alde ibili diren, berriz ere lanari lotzekotan eta indar berriekin daude. Orain, Beti-Gazten antzerki saioak egiteko lekua lortu dute, baita bilerak egiteko eskola berrietan gela bat. Ia euskarara itzuli eta antzerkirako egokitu dute. "Haizeak putz egiten duenean" izeneko ingeles komikia. Antton eta Mikaela zaharrak, dire antzerki obra honen pertsonaiak eta gerra nuklearra gainean dutela eta, ia nola babestuko diren, dute elkarrizketa. Astoputzakoak borondatea badute, orain behar dutena zera da, betikoa, muntaketa egiteko diru pixko bat.

● SAN ANTON UHARKAKO LANAK gibeltuak daudela eta, uda hontan ur murrizketaldiak izan liteke jasotzea. 84ko otsailan hasitako lanak, 24 hilabete buruan bukatu behar ziren, hau da orain dela 4 hilabete. Hala ere "Ministerio de Obras Publicas" delako erakundengan epea 8 hilabetez luzatzea lortu dute, lanari bukaera emateko. Lana bukatu eta ondotik, uharka uraz bete beharko da, berriz ere hustutzeko, honela garbitasuna egiteko. Honela bada, datorren udan lehortea berriz ere jasan ezkero, ur murrizketak izango dire Irun eta Hondarribian.

● LESAKAKO FABRIKAN joan den asteartean, apirilak 22, 24 orduko lana utzi zuten, indarra egiteko Castelloneko "Altos Hornos"eko eskarien alde. Hogei urte omen dire inolako berrikuntzarik ez dela egin Castelloneko fabrika honetan eta gaur egun lanpostu aunitz urratuta daude. Orain enpresak nahi duena zera da: ehun inguru diren langile hauetatik berrogeiren bat Lesakara ekarri eta bertzeak indemnizatuta bidali, honela Castelloneko faktoria deseginez. Erran behar oraindik ere pediduak jasotzen direla eta gero itzultzen dituztela.

MALDAERREKA

Maldaerreka, Bertizarana eta Sunbillako zaborraren arazoa nolabait moldatzeko prozesoa hastera doa.

Zaborra baliagarria da, eta herri txiki hauetan inon baino hobeto dakigu, jan ondarrak aziendari emateko, paperak sua pizteko, botilak patxarana edukitzeko eta tomateak botiltzeko erabiltzen bait ditugu.

Baina, zer egiten dugu gaineko zaborrarekin? Nahiz eta aprobetxagarria izan hau ere, hondakindegietara -zaborra botatzeko lekuetara- botatzen dugu, errekak kutsatuz eta landaretza eta inguru-giroa hondatuz.

Zabor hau aprobetxatzeko, gauza ezberdinak berexirik bildu behar dira, "nahasten ez dena ez baita berexi behar". Horrela egiten dute herri aintzinduenetan eta horrela hasi behar dugu herri txiki hauetan, lehenetariko esperientzia delarik.

Kartoi eta botilak berreskuratuz hasiko da.

Paperaz, eskoletako neska-mutilak arduratuko dira, etxean behar ez diren egunkari, aldizkari , etab. eskoletara eramanez eta euskailu (kontenedore) batetan bilduaz. Honetik ateratzen den dirua haurren aktibitate batzu ordaintzeko izanen da.

Botila eta kartoiak berriz, etxez-etxe bilduko dira, kamioi batez, orain aipatzen dizuegun moduan.

DONEZTEBEN botila eta kartoiak ASTELEHENERO atera itzazue, zabor zakutoetatik metro batetara utziaz.

BERTZE HERRIETAN, botila, kartoi eta egunkariak HILABETEKO LEHEN ASTELEHENETAN bilduko dira eta zabor zakutoetatik bi metrotara utzi beharko dira.



ZUBIETA

●HERRIKO OSTATUA. Herri guztietan bezala hemen ere herriko ostatua ohizkoa izan da, baina badaramatza urte batzuk itxita. Bi edo hiru alditan kandelatu ondoren ostalari berria badugu., aspalditik denok desiratzen genuen. Ez zen herrikorik ausartzen eta horregatik kanpotarra dugu, emakumezkoa gainera. Herria gustatu zitzaion eta ondoren prestakizunak egiten aritu zen. Inaugurazioan oso txukuna eta ederki apaindua ikusi genuen, jendeak, gehien agureak, bazuten orain non hartu goizeko salda goxoa eta besteak berriz, heuren egarriak ase. Dena dela, oso ostalari xelebrea dugu, sarritan ostatua itxi eta alde egiten bait du. Bakoitzak bere arazoak konpondu behar ditu eta hor ezin gara sartu, behar bada hirietako martxan ohituratua eta ezin laketu herri txikian. Orain ere alde egin du, konprenigarria da, Formentera aldera abiatu omen da, lur heredaturen aferak egitera.

Noiz etorriko den zai gaude, pixka bat tabernan saiatzeko. Ia denok "monoarekin" eta kezka handia dago bertan egarriz ez ote garen hilko. Baina, kezka horiek, azkeneko berriak apurtzen ditu. Bera kanpoan dagoen bitartean mutil batek saiatu behar omen du. Ia ba, sei hilabete hauetan martxa ederra jarritzen duken!

●GAZTEEN GORABEHERAK

Zubietan gazte gutxi dago eta horietatik batzuk soldaduskara eramaten dituzte eta besteak berriz Frantzi aldera joaten dira. Pixkanaka, pixkanaka gazte guztiak herritik kanpo, herria oso triste eta ixil utziz. Aurten bederen, oso nabarmen gelditu da gauza. Hau martxa! Eta orain zer egin behar ote dute Zubietako neskatxa gazteak? Beste herrietako mutilengana joan?

Badakigu bai ongi aski zer gertatuko den, hemengo neskak kanpoko mutilekin ibiliko direla eta bertako mutilek etorri eta gero mutil zahar geldituko direla. Lehen gutxi bait dira!

●ETXE BATETAKO DESGRAZIAK

Festak hasi direla nabaritu da. Lehengo egun batean, herri batetako festetan norbaiti "radio Kasset"ak lapurtzea okurritu zitzaion eta Zubietako gazte bati tokatu behar. Kotxea aparkaturik zegoen karretera bazterrean, eta ez zen kotxe bakarra, sail ederra bait zegoen, ba, zoritxarrez honi lapurtu zioten. Eta horretaz aparte altaboza ere bai.

Hau al da bizia? Besta pixka bat egitera joan eta gero kotxera hain kontent zoazela, neskatxa bat ezagutu duzula eta desilusio hau hartu!

txok ere ederra hartu bait zuen. Kotxetik atera eta ia atake bat eman zion.

"Ez duk inon segurantzarik! Ez naiz gehiago kotxearen barruan sartuko hemendik aurrera"kotxe San Fernando uno a pie y otro andando"

●Ai! Ai! Ai! "IVA" ailegatu zaigu. Ze mina Amabirjin Doloretakoa! Nabari da "IVA"rekin merkataritza txikia larritasunean jarri dutela, zerga hau dela medio ospe handiko ostatu bat itxi baita. Ez dakigu zerga kontuan dagoen koxka edo asperturik egotean. Herri txikia eta bost ostatuetan banatzen lanak izaten dira, ostatu honetako bezeria muslari agureak ziren. Hala ere hauek lasai, orain beste batetara joaten hasi dira eta.



Ez goaz gehiago bestara! Utzi beharko ditugu bestak eta ostrak! eta lanera kasset berri bat erosi nahi badugu.

Beste egun batean, etxe honetako seme bati hau gertatu zitzaion: Egunero bezala lanera zihoan, bere kotxe seat 124arekin, "6 martxa" sartuta tximista bezain agudo eta han ikusten du arbol enbor bat heldu zaiola gainera. "7.martxa"sartzen du, zuri zuri eginda difuntu baten gisara, aurrera! baina atzeko kristala xehetu zion.

Gizarajoak susto ederra. Eta ez honek bakarrik, gure lagun Pon-

●Labrantza.

Traka, traka, traka!.. Kran, kran, kran!

Aditzen al duzue?

Bai, tratoreak dira! Eguzkia agertu orduko, jendeak tratoreak etxetik atera eta landako alorretara doa, patata eta artoa ereintera.

Euri egunen ondotik, bapatean agertu direla izan da politena. Aingurrik bezala... Jendea nonbait, alorlanak egiteko eguzkia noiz aterako esperoan zegoen! Ikusgarria da! Zubietako beheko hauzoa "New Yorkeko"atariak diru-

dite, tratore-beren golde eta alpertrafikoa beteak.

Nola aldatu diren gauzak! Garai batean landara, egun guztirako joaten ginen, geure haziendak eta trasteriak hartuta. Gosaria, bazkaria eta berendua etxeko andreak eramaten zizkigun. Ueunan, Xilitorran, Andudin edo non zela eta han aritzen ginen gure behi eta mandoekin "aidddaaaka" eta "arrre eeeka" karrerik ezzzin ateriz! Eta hori krisston egun pila.

Orain berriz, gasoil ttantta bat bota eta tratorez aste batez irauliak, ongarrituak, alpertuak eta ereinak.

Ze gauza aizu! PROGRESUA!

● Bestak prestatu behar direla eta.

Lehendabizi bandoz deitu, gero karteletaz,.. eta horrela ere ezin jenderik bildu... Zer duk hau? Lanpetuak batzuek, besteek kaskarinak eta, gehienak, ba hori, hobe parterik ez hartu gero mingaina libre izateko... Bueno, bueno, ez dugu hain beltza jarriko.

Egia da, ikusten denez, horrelako lana gustokoa ez dugula: bildu, erabaki, deiak egin, harat eta honat ibili,...

Baita ere herria -hor nunbaiten esaten den bezala-, ustutzen hasi dela, gazteriz eta hain gazte ez direnez. Zentzu horretan bai lana, bai soldaduska eta bai ezkontza herri txikien etsaiak dira ... Ayuntamientun bertan- udaletxea esan behar omen da- konzejal guztiak gutxitan juntatzen dira. Aurtengo presupuestuak erabaki behar zirenean, adibidez, lau edo bost lagun alkartu zirela aditu dugu... eta bestetarako ihazko presupuesto bera. Hortarako ez IVA, ez VENIA.

Baino, lasai! Ez kezkatu! Nola edo hala ateko dira, bestak, eta gogoz hartzen dituztenak, ongi. Hori da: denak ongi.

Eta, bitartean, Amarjinak arte,

han eta hemengo bestetan zubitarrak azalduko ere... eta nahiko kostata etxera bueltatu.. hurrengo eguardi aldera Iruritatik zubitar batzu lesakar txar bat lagun zutela... Hara, atsaldeko lauetan edo eraman zuten bere herrira -edo hirira-? haur txapel bat buruan itxekia. Hau lana!

Tira, tira! Zerbaiterako bildu behar garenean, jai bat antolatu eta, ez dugu deus erabakiko baina ongi pasatu bai... Edo bestela, herriko etxeari beste itxura bat eman, alaiagoa, zeren konzeju tokia karmeliten ankautzik gelaren bat dirudi: Por zierto, Euskal telebista oraindik ez dugu lortu.

● EKAITZA ETA TRUMOIA

SSSIII

SSSIIITTTI!!! Kaso eman! Eta Bidasoa odolez bete aurretik, bizpahiru punttu argitu dezagun:

Bata - Hauzitegian badira gauzak, bertan utzi dezagun. Hori bai! Galdetu, galdetu Arantzan bertan, eta bat baino gehiago esango afereko lurraldiak zubitarrak direla...

Bia - Zer esan nahi duzue konparaketa txar horrekin? Zuek Gadafitarrak eta gu, berriz, Reagan aldekoak? Hor dira OTANeko erreferendum datuak... Zein da gure guda-irrintzia? Biba Rusiaicomunisssmo (bukatzeko mingain puntta eskubi aldetik azalduz)

Hirua- Arantzatar txarrik ezagutzen ez dugunez, tira, utz dezagun usalekua, lurralde neutralerako -usoak ados badira!- eta, guregatik behintzat, Zubietako Ekologista Talde aldetik, legeztatu dezagun zera: Usaleku hoietan hartzen diren uso erdiak herri bitako afari baterako eman beharra. Zeren, gu behintzat, ekologistak bai, bainan, usoa saltsan. ...UUUMMM!

Azken punttu garrantzitsua: Nun dira orain usoak? Ipar aldean Rusia aldean.

Nor ausartuko da uso radiaktiba lumatzen? Eta jaten?

● PADRONAN GORABEHERAK

Hau da hau, herriko martxa, 351 biztanletara jeitsi gara azkeneko padron berrian agertzen denez.

Berdinean segituko genuela nabari zuen baina azkeneko zentsotik 30-bat gutxiago dira. Berrogeiren bat urtetan herriko zentsua erdiraino ailegatu da. Charnobyl nabari du Zubietak nahiz eta zentral nuklearrak ez izan, bestela ez eta katuak geldituko ziran.

Zerbait egin beharko genuke holako herri bat ez bukatzeko beste berrogei urtetan. Badakizue zer egin ez?

●A.E.K.ko bidaiak.

Hau da hau, AEKren martxa! Udaberria hasi ezkeroztik, euskara ikastez aparte, beste gauzaren bat edo beste ere egin dugu; oso azkarrak garenez astia badugu bidai txiki batzuk ere egiteko.

Adibidez, Martxoan, Maldaerreka eta Bortzirietakoak Lakuntzaruntz abiatu ginen, asteburu bat pasatzeko asmoz. Ailegatu bezain laister mahaiean eseri eta dotore aski afaldu genuen, "Las potxolas" eko janariaren parekoa (hobeagoa ez bazen ere). Eta gauaz, han ez zegoen lo egiteko modurik, izan ere galdu genezakeen zorronkalari koroak eskeini zigun paregabeko konziertoa, E.E.U.U.ko Unibersitate famatu horretan ez dute denbora alferrik galdu, ez arraioa!

Hurrengo egunean, larunbatean, birikak garbitu behar zirela eta, pilota partidu batzu jokatu ondoren Aralar mendiraino iristeko adina indar izan genuen. Eta noski, han ere ez ginen geldirik egon, batetik elur pilotak zirela, bestetik joko "Didaktikoak", ezin inola ere atsedenalditxo bat hartu. Eguna ongi bukatzeko Altsasuko giroa ezagutzera joatea erabaki genuen, hori dena ikuspegi kulturaletik begiratuta, ez pentsa gero!

Igandean berriz, han ziren komeriak, han, ezin karreatu jendea etxe aldera! Azkenerako nolabait errenditu ginen eta bidean harrapatu genituen herrietan mokoa bustiz (ez bait gara basamortuan bizitzeko eginak) itzuli ginen.

Sakana aldea oso hurbil zegoela iduritu zitzaigun eta urrutixeago ere joan gintezkeela pentsatuz, horrâ hor non goazen Zubero aldera betiko gudarostea autobus alokatu batetan.

Makina bat bitxikeria badago alderdi horietan ere; esate baterako Uharre mendizintzurra gurutzatzen duen zubia, punta batetik bestera zintzilika (pilarerik gabe); segurantza handikoa bada ere, bagenuen gure artean gizonek egindako eraiketaz bat ere fidatzen ez den bat, Txema gizarajoa, aurpegia txuri-txuria, belaunak klik eta klok, ziurki bere baitan pentsatu zuen bereak egin zuela baina zorionez ez genuen bukaera trajikorik izan. Dena dela ea fidakorxeagoa haizen mutil, horrela ezin duk jarraitu!

●Tolateko erreka.

Orain ere badittugu karriketan desastreak. Amolatxen parean, Tolate errekako zubia hautsi egin da. Ez pentsa bere gisa erori dela, ez, ez; kamion batek hautsi du. Nola? Ba Zamalbide aldetik zuhaitzez betea heldu zela, Ferminen atarian gruaren palanka hautsi zitzaion eta soldadora nork zuen galdezka hasi zen...

- Elixaldekoak badute...! eta hor gogoratzen zaio soldadora

TXATARRERIAN BEGO



R.I.P.

SEAT 1500 FAMILIARRA

1986ko apirilaren 22an txatarrerira eraman zuten NA-68413 20 urte zituelarik, Euskadiko bazter eta errepide guztiak ikusi ondoren.

Itxura txarra zeukan, karrozeria zulatua, kanbioak hondatuak eta birikak, ke beltzaz beteak. Deustako ez zela jarria zen eta jakina zen hola bukatzea.

Bere nagusia eta nagusiaren senide, lagunak, oso penatuak utzi ditu. Otoitz bat eskeini diezaiogun bere txatarra probetxu onerako har dezaten.

PAKEA ZURETZAT
(eta guri emanen diguna ere)
Meza sariak TTIPI-TTAPAri eman.



bertara ekarri beharrean kamiona hartu eta Elixaldera joatea. Zubiak hontan iraun zuen baina konponketa egin eta bueltan etorri zenean, KRRASK!!!, zubia lehertu! hautsi, hurrengo egunean hautsi zuen esneketariak, leku beratik pasatu zenean.

Zer esan behar dauka? Hau ez da posible, herriko atariak ez dire kamionak ibiltzeko eta kargatuta gutxiago. Hola jarraitzen badugu pentsatu nola gelditukо diren karrikak.

Atzetik heldu dira Udaletxeko "Brigadas moviles de Arreglos Varios", eta "Zubitako zubi konpontzaile trebeak", bai, konpondu ere zubi handia eta txikia, baina horrela jarraitu ezkero, kamionak sartuateri hortan, Errandoneko Patxiku jabetuko da aferez eta zubia aldatuko ere... sarrerako zubia bota eta Doneztebeko antzekoa eraiki...

●Zubietarrak Bretainan.

Urtero "Festival Celta" edo "Kelta Jaialdia" deitzen zaion jaialdi bat egiten da Europan, munduko zelta kultura duten herriak bilduaz. Hauek Eskozia, Irlanda, Bretaina, Galizia eta Euskadi dira.

Aurten jaialdi hau Bretainan (Frantziko rejio bat desgraziz) eginen da eta beti bezala Euskaditik ere joan beharra da errepresentazioa baino, aurten, bereiztasun bat gehiagokin: Zubietako ioaldunak.

Oreretako (Errenderi) jaialdi hau antolatzen duen kultur taldeak deitu zigun, 8 ioaldunen bat joanen ginen 8 egunez jaialdi hontara, gastu guztiak pagatuta.

Zaharrak joan nahi ez dutela eta nor joanen den bila gabiltza. Hau "txolloa", 8 egun oporretan eta gainera ioaldunak internazionalizatzen: belaxe HOLLYWOODera.

Hollywood baina beheraxeago egonen da Joxemi, taxistan semia, Karibe aldean, beste etnia batzuren ezaugarriak estudiatzen sakonki...

Zubietarren prestutasuna, zintzotasuna.

Ez gara ez, hortik esaten den bezala, zubietar guziak "brutoak". Ittunen jakin dute! Zubietar batek bildots bat hartu du Iturengo karreteran. Ia akatu zuen katua zelakoan, baino nonbaitgaitzetsia zen eta han zegoengaixoa.

Zubietarrak etxera ekarri, esnea eman eta biharamunean berriz ere Iturenera eraman, nagusiari emateko. Aixa bilatu ere. Ioanekoa zen.

ITUREN

● BEHIA IHESI. Trinitate aurreko astean, Barbeneko behia belai lekutik aldegin eta hor abiatu zen laisterka karrikan behetti. Plazan eskolako haurrak atseden aldian zeuden eta... bat batean batzuk laisterka besteak herriko etxeko eskailera goitti, hau besta, hau bildurra. Maisu maistrak, pareta baino xuriago haurrak ezin kontuz. Behiak, Mediku-etxearen parean, buelta eman eta karrika goitti. Plazako askan gelditu zen. Eskerrak Ioneko Juan Martinek hartu eta eraman zuen, bestela... San Ferminak Iruñera joan gabe hemen izanen genituen.

● TRAKTORE KARNETA. Hara! Albineko Inazio, Errandoneko Martintxo, Dopeitzeneko Meliton adintuen artean eta Lopetxeneko Belen gazteen artean, traktorearekin ibiltzeko karneta ateratzera doazte. Orain artean lanean, traktorekin ibiltzen ziren baina karnetarik gabe. Nonbait hemendik aintzinera eskatuko dute eta hori lortzeko, Elizondoko Lanbide Eskolaraino joan beharko dute. Aterako ote dute lehendabizikoan? Heurek diotenez ez omen dira gehiago saiatuko aprobatzen badute bien! bestela..
orain arte bezala jarraituko dutela. Baina, badaezpada ere, eskolara. Dakienik ez baita jaio oraindik.

● ESKOLAK ARRISKU LEKU

Orain dela urte pare bat gutxi gora behera, enbor batek haur bat jo zuen eskola aurreko terrenoan eta bere kaltea egin zion. Nonbait kasu harek ez zuen balio izan eskanmertatzeko zeren eta aurten eta leku berdinean mendian ebakitako enborrak utzi bait dituzte. Eta hor bertan lanean aritu dira. Kamioiak, gruak, zerramotorrak,..
Zorionez, ez da ezer gertatu. Baina, ez dago eskubiderik! Haurrak eskolara bidaltzean arriskuan bait daude.

Lehen ere Iturengo eskolak arrisku-leku besterik ez dira."Mutilen eskola" deritzen dena, alde batetik karreterari itxekia dago eta bestetik errekari, erreka honek ez du inongo petrilik, ez babesarik. Atseden aldian, haurrak eskolatik plazaraino joan behar dute. Berriz ere karreteraz... (oraindik ez da ezer gertatu, baina ezin dugu zai ere egon)

Beste eskolakoak berriz, zer erranik, ez, eskolatik ateratzerakoan dauden eskailerak ez dute inongo seguritaterik eskeintzen eta zuzenean ere karretera ateratzen dira.

Eskola barruko egoeraz (hau da horko kallefazio, paretak, komunak eta abar) mintzatzen hasi gabe, zera dakigu: orain dela urte batzuk Ministerioak eskola berriak egitea eskeini zuela, baina herriak terrenoak paratu behar zituen. Herriak ez ditu terrenoak paratzen... Eta horretaz aparte, gaur egun eskolak duen terreno pixka hori, kamioiak kargatzeko eta egurra hor botatzeko erabiltzen dute.

Gutxienez, ezer gertatu baino lehen neurriak hartu beharko genituzke. Hasteko, haurrak ahal den eta leku seguronetan ibiltzekoa eta ondoren babesa eta kondizio egokian egindako eskolak.

● LAPURRAK GILTZEN JABE. Juani Etxepetelekuren "Ford Fiesta" urdina zein zerutan ote dabil! Dirudienez norbait behartu zen eta Iturengo pisuetako atarian zegoen kotxe urdinari eskua bota zion. Inor ohartu baino lehen kotxea falta.

Lau kotxe zeuden lekutik itxia zegoen bakarra hautatu zuten, harritzekoa! Bide errezak alde batera utziz zailena aukeratzea.

Juanik mila buelta eman ditu baina alperrik. Orain dela bi hilabete desagertu zitzaion kotxea, gaur egun ez du aurkitzeko itxaropenik ere.

Non demonio ote dabil kotxe hori? Berriz ere hartutako lekuan utziko baluteke fabore ederra eginen lioteke. Baina ez jakinki gauza horiek joan eta gero etorririk izaten duten.



● MALDA GOITI MENDAUR TONTORRERAINO.

Aurten Maiatzaren 25ean ospatu dugu besta eder hau. Iturenen jendea goiz mugitzen hasten da, eguraldi beroa eginez gero ez baita giro izanen hor goiti ateratzen. Inguruko herrietan ere, horrela izaten da. Denon helburua Mendaurrera igotzea da. Neska, mutil, adintu eta gaztea, haurrak, denok han topatzen dugu elkar.

Itundarrok, elizetik goitti abiatzen gara, pistaz hasieran eta gero pagadian barrena "hotel Asurdi" deritzan bordaraino, han gosaldu eta indarrak berritu ondoren goittira.

Batzuk mezetara iristen dira, besteak berriz mezak alde batera utziz, batekin eta bestekin solasean hasten dira, inguruko mendiei begira, Arantzako mendiak noraino, Zubietakoak, Iturengoak...ño! Ederra! Herri zulo hauetatik goittira igotzeak on egiten digu. Begia urrutira botatzeak gustoa ematen baitu. Mundua zabala dela halajainetan!

Hala ere, beheko zelaiera jeitsi baino lehen ermitari hiru buelta eman gabe ez gara joanen. Deseo bat pentsatu, hiru harri koxkor esku muturrean hartu eta buélta bakoitzean bat teilatu gainera botako dugu. Nik dakidan batek laisterka eman zituen, hain zuzen ere bere deseoa lehen bait lehen bete zedin. Beste batek berriz, aurrean zihoan neskatxari bota omen zizkion, eragingarriagoa izanen zelakoan, ez zuenean bertan txikitu, kontent!

Aurten Arantzako akordiolaria genduen, hantxe egin genituen zortziko eta jota batzuk. Gero enbaltsetara abiatu ginen. Behettira hasi bezain laister, harmal handi batean pankarta bat zegoen "Errefuxiatuak Euskadin libre" ziona.

Enbaltsetan bazkaldu genduen, talde bakoitzak bere lekua bazuen. Herri guztietakoak ikusten ziren. Donoztebe, Zubieta, Elgorriaga, Goizueta, Leitza eta abarrekoak. Arantzarrak, sunbildarrak, badirudi bere herri aldera joateko joera dutela.

Ederki bazkaldu eta pago artean gozatu ondoren, Aurtizera jetsi eta ostatuan trago pare bat hartu genituen, eta gero zortzikoa dantzatuz herrian sartu. Aurtengoa bete dugu eta hurrengora arte!

ERASUN

● Retegui Txapeldun

Julian Retegui (Retegui II) bere martxan dago.

Aurten zazpigaren pilota txapelketa irabazi du eratsundar honek. Oraingoan Tolosa izan da bere biktima, gizarajoa hau, hamabi tanto besterik atera zituen.

Ia Eratsuna guztia Anoetan zegoen eta herrian zeudenak irrati barrenean sartuak (ETBek ez zuen telebistaz eman partidu hau). Lehendabiziko ikariak pasatu ondoren Retegik erraz xamar irabazi zuen partidua (22-12).

Eratsundarrak ekaitza bezain nahastuak zebiltzan bai Anoetan, bai herrian, heuren txapela kalez kale ibiliz.

Kristoren martxa izan zen egun hartan Eratsunan. Zer esanik biharamonean oraindik etxeetako mandoko zuriak harrapaladan itxurarik ez bait zuten.

Eta gero Diputazioak emandako ohorea, bereiztasuna....

ELGORRIAGA



● BALNEARIOKO PLATANO ARBOLAK ETA ARITZAK, matarrasan kendu dituzte. Ez da zuhaitz bat ere gelditu, horko zelaia larrugorritan utzi dute.

Nonbait horko nagusia konde bat da eta berak hartu du horrelako erabakia. Lanean aritu direnak berriz Donamariko Olabidekoak izan dira. Zer egin behar ote dute orain?. Erreka bazterra delako, batzuk diotenez, makalak paratuko omen dituzte. Ez jakinki, konde horren asmoak.

● Zuhaizti bat gutxiago.

Berriz ere naturaren aurka! Ez dakit zergatik edo zertarako desegin duten Balnearioko zuhaiztia baina begibistan dago norbaitek aski ongi dakiela zer egin duen.

Egun batetik bertzera, ezer kontutan hartu gabe hain maitea genduen zuhaiztia bota digute. Eta horrekin batera milaka oroitzapen. Horrelako jokaerak ezin dira onartu, batez ere biziaren zehar ondoan eduki duzun udako geriza abegitsua desagertua ikusteaan.

Zenbat oroitzapen! Zer nolako beldurrak pasatzen genituen Elgorriko bestetara joatean, batez ere, mutilak mozorroak zeudela "Balnearioan" oihukatzen zigutenean? Eta zenbat irri egiten zuten gure kontura!

Kanpinzaleak ere ezuste iluna aurkituko dute txoko honetara ailegatzean eta heuren aurrean hutsune triste bat besterik ez dutenean aurkitzen.

Eguzki irrigartsuari ederki kostako zaio ondasun hau gure begietatik gordetzea; hutsunearen hotza epeltzea.

Hainbeste eri sendatu dituen leku miresgarri honek, Elgorriko gatzak zirela medio hain zuzen ere eta orain, horrela bukatu behar!

Honelakoetan zoritxarrez, konturatzen gara zein errausle bihurtzen diran batzuen interesak. Agindu bat eman eta.. Agur zuhaiztia!.

Nere oroitzapenen alorrean landatzen zaitut.

SUNBILLA

● FARMAZIA BERRIA

Karretera bazterrean farmazia ireki behar dute, zerbitzu on bat izanen da Sunbildar guztientzat. Poltsan ere nabarituko dugu, Donezteberа joan ordez, botika guztiak herrian erosiko bait ditugu. Horrela, Juanjo gure albinteak ere ez du hainbeste bidairik egin beharko Donezteberik botikak ekkartzen.

● NAFARROAKO PALA TXAPELKETA

Orain dela egun gutti "Nafarroako pala txapelketa"k gure herrian egin zuen "Fase de Zona" deitutakoa, herritar batzuk ere parte hartu zuten. Ez ziren onenak, baina bai gogorrenak, nahiz eta azkenak geratu.
Irabazleak Ameztoi eta Galarregi baztandarrak izan ziren. Honen ondorioz, txapelketa bat bestea baino politagoa eta ikusgarriagoa antolatu dugu herrian herritarrentzat. Partiduak larunbatetan eta igandetan jokatzen dira. Ikusiko dugu hainbeste figuren arteean zein den onena?

ah!!! eta Rufinoren kotxez...
zer?

● ERIZAINA

Dakigunez, inoiz ere ez du herri honek ERIZAINIK izan. Medikua bai eta gainera herri honentzat bakarrik mediku bat dago. Beste herrietan errate baterako, herri askoren artean izaten dute bat. Hori bizilagun kopuruaren arabera egokitua dago.

Sunbilak 1981eko zentsoak agertzen duenez 657 bizilagun zituen. Horietatik, herrian bizi dira batzuek eta beste asko baserrietan sakabanaturik daude. 1986ean Sunbillak 61 baserri ditu eta horietan 287 lagun bizi dira.

Orain arte, medikua bakarrik aritu da lanean, erizainik ez da izan eta. Bestaldetik, herriko etxeak bazuen bete behar bat, erizain lanpostu hori ateratzekoa eta ez du gaur arte atera. Zergatik? Arrazoi askoren artean, ez zelako erizainaren beharra ikusten eta horretaz aparte herriko kontutik ordaindu behar zelako.

Aurten azkenean, lanpostu hori ateratzea erabaki dute. Hain zuzen ere, azkeneko aldiz aukera hori izanen dutelako, hau da herriko etxeak erizaina bereztekoa. Eta gero, erizainari ordaintzeko lana Diputazioari pasatuko zaio. Gauza bera gertatuko da medikuarekin. Medikuari ere Diputazioak ordainduko bait dio.

Horrela da gauza eta iadanik Nafarroako "Boletin"ean atera da plaza horren berri. Dakigunez 20 bat lagun presentatu dira, horietatik bat berezi behar dute. Hortarako azterketa bat eginen da, eta bakoitzaren kurrikuluma kontutan hartuko da baita euskalduna izatea ere.

NARBARTE

● NARBARTE OSTATURIK GABE GELDITU DA.

Bai! Gai hau da herri honetako solasbideetan maiz ateratzen dena. Egoera hau, "IVA"ren ondorioa izan da eta bistan dagoena hauxe da: herritarroi ez zaigula batere gustatu.

Batez ere gizonen artean eragin handia izan du, hantxe harrapatzen bait zuten heuren bizigarria: mus saioak, xurrupa bat edo beste eta heuren arrazoiak ere, toki horietan aisago argitaratzen zituzten. Orain berriz, bat batean itxiak.

● ENPARANTZA BERRITZEN.

Jokatuko nuke Errusiar zentraleko eskapeak ez dituela hainbeste unkitu. Hain larria ote da ba ostaturik gabe gelditzea?

Horrelako iturriak mendietan eta...!

Joan den apirilean, Narbarteko enparantzaren konponketari hasiera eman zitzaion. Orduan, honen zola, frontisa eta zeharkako orma konpontzea onartu zen, baina orma honekin hastean eta narriadura handia agertzea onartu zen, baina orma honekin hastean eta narriadura handia agertzean honen erdia botatzea eta berriro egitea erabaki zen.

Hori da egiten ari direna. Badirudi xarmanki gelditukо dela.

BAZTAN

● BAZTANGO BALLEKO ETXEA ETA EUSKARA

Euskaldunok ongi aski dakigu Baztango kazikeak eskual kulturaren kontra daudela. Ez da harritzekoa bada azken bilguran onartu zen akordioa: idazkari edo sekretario plaza betetzeko presentatu diren pertsonei ez zaie eskatuko euskara, hau da, erdaldunak izanen dira. Erabaki honen alde UPNekoak atera ziren; PNV, Agrupacion Baztandarra eta Herri Taldeak kontra atera zirelarik.

Berriz ere euskaldunak diskriminaturik egonen gara Baztanen; gainera erran behar da Baztango biztanlegoaren %80 euskalduna dela, aunitzek erdararik ez baitakite edo problemak izaten dituzte erdaraz mintzatzeko.

● BAZTANI BURUZKO EXPOSIZIOA KULTUR ETXEAN

Elizondoko Arizkunenea Jauregian Baztani buruzko erakusketa bat ikus daiteke. Natura, gizarte eta ohiturei buruzkoa da; goiz eta arratsaldez zabalik dago.

BESTAK HASI DIRA

Goiztarrenak (ingurukook ongi dakigun bezala) Iruritakoak izaten dira. Salbatore bezperan hasi eta igandea arte nahikoa animazione eta jende izan zen. Ondoko asteburuan Berroetakoak ospatu genituen. Aurten denborak lagundu duela erran daiteke.

● ZORIONAK ELIZONDOKO LANBIDE ESKOLARI.

Elizondoko Lanbide Eskolak garrantzitsun sari bat irabazi du aurten ere. Kulturazko Ministerioak konbokatu zuen sari bat "Viajes Culturales por España" izenarekin eta Eskola hontako bosgarren mailako bi taldeak prestatu zuten izigarrizko lan bat titulo honekin: "Pirineos: una Montaña, una Historia", eta hiru liburutan



enkuadernatuak agertzen ziren Pirineo guztia segituz alde batetik bestera, Zugarramurditik Kataluñarako Kabo de Kreusartarainoko gai interesgarrienak geografia, historia, kultura, arte eta tradizionearen aldetik.

Lan honekin gazte hauek irabazi dute lehenbiziko saria: 150.000 pta.

Baina ez da hau lehenbiziko aldia eskolako ikasleak holako trebetasuna egiten dutenik. Joan den urtean ere irabazi zuten sari ber-bera "Santiagoko Bidea" lanarekin.

Gure zorionak, eta segi dezatela berdin!!

● AMAIURKO FUTBOL TALDEAK KOPA IRABAZI

Joan zen neguan hasi eta aurtengo maiatza arte. Elizondoko pilotalekuan futbito partidoak izan dira. Larunbat eta igandero jende aunitz biltzen zen Baztango jokalari trebeak ikusteko asmoz. Erran behar da Ligan "Bar Mendi" koak garaile atera zirela, "Bar Saioa"koak bigarren gelditu zirelarik.

Aurtengo txapelketaren errebelazioa AMAIURko taldea izan omen da, adituek erran digutenez. Arras talde elkartua, garbien jokatu duena (espultsaturik ez baitu izan) eta batez ere, teknika ikusgarri batez jostatu direnak.

Hona hemen jokalari zerrenda:

Atezaina: Antton
Gibelean: Martzelino, Pello R. eta Koldo (Kapitaina)
Erdian: Beñardo eta Pello E.
Aitzinean: Paulo eta Joxemari.
Entrenatzailea eta "managerra": Faustino Maisterrena.

Jakin izan ahal dugunez, Osasunako direktiboak harrituta gelditu omen ziren Amaiurkoen teknika fina akusi zutenean. Agian heldu den urtean Ligako txapeldun!

GURE ZORIONIK BEROENAK AMAIURTARREI.

● ALMANDOZEKO BARIANTEA MARTXAN

Azkenean Almandozen bariantea egiten hasi dira. Zeharbide honek gauzak aunitz erreztuko ditu, batez ere kamionei. Gainera karrikan bizi direnek lasaiago lo eginen dute hemendik aitzina.

Baita ere erran behar da Belate mendi portuan egiten ari diren kamionendako bidea ia bukaturik dagoela.

● BAZTAN FUTBOL TALDEA PREFERENTEAN MANTENTZEN DA.

Nahiz eta urte guztian erdipurdi ibili, Baztandarrak, azken partidoetan egindako jokoari esker, Preferentean mantenduko dira.

ZUGARRAMURDI

● BASERRI BATZUEN ARAZOAK

Joan den mendetik honat, Baztango eta Zugarramurdiko udaletxeak ibilki dire pleito batetik ateratzen bestean sartzeko, 58 baserri batzuengatik. Afera hauxe da: Zugarramurdiko inguruan badire 58 baserri (72 biztanle) orain arte Zugarramurdira egiten zirenak gauza guztientzat: haurrak Zugarramurdiko eskolara heldu dire, hemengo bestak ospatzen dituzte, honat etortzen dira elizara, hemengo kanpusantuan enterratzen dire heuren hilak eta edozein gauzendako Zugarramurdiko udaletxera etortzen dire....orain arte hola bizi ginen lasai. Bagenekien udaletxeak bazituela bere aferak Baztanakin baina deus inportantzia gehiagorik ez genion ematen. Orain arte. Aurten baserritarrak Zugarramurdiko udaletxeari zergak ordaindu ondoren, harrituak ikusi dute Baztango udaletxeak bere aldetik ere beste zerga batzuk pasatzen dizkiotela. Eta holaxe gara: alde batetik Baztanek dio baserri horiek bereak direla betitik eta lehenago zerbaitengatik Zugarramurdiko udaletxeari utzi zizkiola zergak kobratzeko eskubidea, baina baserriak bereak direla. Zugarramurdik berriz ezetz, hori ez dela horrela.

Beste aldetik baserritar hauek bidalia dute eskutitz bat esanez Zugarramurdiak izan nahi dutela. Ikusiko dugu zer gertatzen den ondarrean.

● PARTIDU INTERESGARRI BAT

Apirilaren 6an goizeko 12 etan bagenuen izugarrizko pilota partido bat anuntziatua.

- Daniel - Pantxo
- JoxeMari - Pakorro

Ostatuko lau lagun hauek egina zuten beren artean apostua, eta Altzateneko ostatuan bilduak ziren ere bai zenbait mila pezeta alde batetik eta bestetik (haietatik 500 nereak).

Baina ailegatu zen eguna, euria ari zuen, eta gure gizon hauek erran zuten horrela ez zela pilotan aritzerik. Bon, euria pasatu zen, elurrak eta kazkabarrak ere bai, eguzkia ere agertu zen noizbait pixko bat, baina ez dakigu zer pasatu den partidu misteriosu honekin.

Ez dakit igandea, larunbata baten ondotik, egun txarra ez ote den holako indarretan aritzeko. Uste dut nere 500 pzta. erretiratu beharko ditudala.

● 21EAN GAUPASA

Duela lau urtetatik honat, Zugarramurdiko gazteriak udaletxearen laguntzarekin, antolatzen dugu ekainaren San Juan bezperaren larunbata hurbilenean gau pasa bat lezeetan.

Aurten ere martxan eman dugu afera eta hola jakinarazten zaituztegu ekainaren 21ean arratseko 12etan eta sorginen lezeetan (ze beldurra)!! hasiko dela animaleko besta bat:

Zuek ezagutzen dituzue Niko Etxart eta Min Xori ero hauek, ez? bon, han egonen dire martxa emateko gauari. Ah! baino ez hau bakarrik, ez, etorriko da baita ere Hondarribiatik txaranga bat. Gehiago, nola falta behar zuten sorginak? han izanen dire sorginak, akerrak, deabruak, etab. Aizu!, eta sorginak aizkatzeko zanpantzarrak? segurki ere bai han izanen direla. Zer? Animatzen zara? Aupa! nahi baldin baduzu etorri, gu han izanen gara.

● URDAZUBIKO BESTETAN

Urdazubiko herriak antolatzen du urtero pilota txapelketa bat. Partiduak hasten dire Martxo aldean, horrela finala bestetan egiteko.

Jokalari gehienak Urdazubiko eta Zugarramurdikoak izaten dire eta honek emozione haundia ematen dio txapelketari, bakoitzak bere

herriaren alde ateratzen direlako, noski.

Aurten finalera ailegatu dire, Zugarramurdi aldetik Pol eta Martintxo, eta Urdazubi aldetik Daniel eta Martin.

Partida polita izan omen zen eta azkenean Urdazubiarrak gelditu ziren txapeldunak 50-35 irabaziz.

● LEZEAK

Duela 6 edo 7 urtetik honat sorginen lezeetan izan ez direnak, ohartuko dira handik honat zerbait pasatu dela. Lezeak, berez, ez dire aldatu baina bai inguruak.

Diputazioaren laguntzarekin udaletxeak harriztatu ditu lezean sartzen diren bideak, harrimatu ditu zubiak, elektrizitatea sartu du eta egin du borda txiki baten gisa sarrera ordaintzeko tokia eta komunak.

Aldaketa hauek, batzuk ongi ikusi dituzte esanez orain errexagoa dela han barna ibiltzea eta ez lehenago bezala erortzen ahal zinelarik lau pataz goiti ez zelako harri kozkor, buztin eta lohiarik baizik, edo baita ere errekara erori zura mehar baten gainetik pasatzerakoan.

Beste batzuk berriz, ez dire konforme eta esaten dute orain lezeak galdu dutela aunitz, ez dela lehen bezain basa, eta gainera ez direla imaginatzen ahal sorginak lezera sartzen edo ateratzen eskaleretan barna.

Bertze afera dugu lezeetan sartzeko ordaindu behar dela (70 pezeta haundiek eta 30 haurrek). Gehienak deus esan gabe ordaintzen dute eta kitto; baina badire beste batzuk ere sutan jartzen direnak, ohiu batzuk botatzen dizkiotenak han den kobratzaile gaixoari eta gero aire partitzen direnak haserretuak.

Lehenago lezea mendi puska bat bezala zen: jendea sartzen zen eta ateratzen zen nahi zuelarik, nahi zuen tokitik eta inori deus esan gabe; kanpinak ere jartzen ziren edozein lekuetan; zaldi, eta ardiak jabetzen ziren batzuetan lezeetaz eta jendeak (gero eta jende gehiago) uzten zituen zikinkeriak han gelditzen ziren inori deus inporta gabe.

Baina ailegatu zen eguna Udaletxeak esan zuena "akabo!" eta handik aintzina atera ziren zaldi eta ardi guztiak, ez zen gehiago utzi kanpinik barnean, garbitu ziren lezeak eta.. hasi zen sarrera kobratzen.

Hori pasatu zen duela hiru urte, handik honat lezeak hobeki zainduak dire, harat etortzen den jendeari ematen zaio orri bat lezeko hixtorioaren buruz, eta beste aldetik horrela gure udaletxeak badu laguntza ttiki bat ekonomi aldetik.

udan herrietako bestak

Iduri du Udaberria iritxi dela. Uda ere ia ia urbil ikusten dugu, eta orain egun luze hauekin eta eguraldi eder honekin nahi eta nahiez denok pentsatzen dugu "Bordatxo, Dollar edo Erne" alde batera uztea eta beste dibertimendu batzuk harrapatzeko.

Horrela ba, lana errezten dizuegu hemen presentatuz gure aldeko herrietako besta batzuk: Urdazubitik eta Iruritatik hasiz Maiatzaren 8an, Garzainen eta Aurtitzen bukatzeko Azaroaren 8an.

Baina hala ere, kontuan hartu, behar bada ohartuko zaretela data batzuk ez direla arras ongi emanak, hori da pittat gora behera altaxu emanak ditugulako gure oroimenaz fidatuz.

Ekaina 21 : Arizkun, Saldias, eta Zugarramurdiko gau pasa.
Ekaina 28 : Erratzu
Uztaila 7 : Lesaka eta Azpilkueta.
Uztaila 12 : Ituren
Uztaila 25 : Elizondo eta Elgorriaga
Abuztua 2 : Bera
Abuztua 9 : Ziga, Sunbilla, Leitza
Abuztua 15 : Zugarramurdi, Amaiur, Mugaire, Etxalar, Arantza, Zubieta, Ezkurra, Goizueta, Donamaria, Labaien, Azkain eta Ainhoa.
Abuztua 24 : Lekaroz, Narbarte
Abuztua 30 : Legasa, Arraioz.
Iraila 6 : Oiz, Erasun eta Sara.
Iraila 14 : Elbetea
Iraila 27 : Igantzi eta Urroz.
Urria 5 : Aniz
Azaroa 8 : Gartzain eta Aurtitz.

MALDAERREKA ETA BORTZIRIKO

Aurtengo ikastaroa bukatzear dago eta urte motz honetako balantzea egiteko momentua heldu da. Zaila da, egia erran, lerro batzutan hainbertze gauza sartzen, baina, zer arraio, zer egin den eta zer egiteko asmoa daukagun erran behar, jendeak jakin dezan.

Lehen urtea denez, akats batzu izan direla aitortu behar, baina azken finean, euskararen inguruan mugimendu bat sortzeari dagokionez arraso pozik gaudela erran behar ere. Hori da gure helburu nagusia eta hortan jarraitzeko asmoa daukagu.

Hasiera joan den abuztu aldera eman genion, eta hasiera nahiko mugitua gainera. Zerbait egiteko behar nabarmena ikusten genuen eta denborak arrazoia eman zigun.

Berehala jendearen erantzunak gainditu gintuen hasieran, guk espero baino anitzez gehiago matrikulatu bait ziren.

Ondoren eta Maldaerrekakoekin harreman ezin hobeak genituenez, koordinatzea erabaki genuen. Geroztik harreman horiek hobetuaz joan dira gaur egun gau-eskol bakarra osatzen dugula erran dezakegularik. Beraz, puntu horretatik aintzinera hartutako erabakiak eta egindako gauzak Bortziri-Maldaerrekako AEK bezala eginak izan dira.

Urriaren 21ean ikastaroari hasiera eman genion, Bortzirietan 90ren bat lagunekin eta Maldaerrekan 50en batekin. Otsaila arte gure kanpo-ekintzak mugatuak izan ziren, nahiko lan bait genuen klaseak behar bezala ematen. Hasiera hartan Irungoekin koordinatzen genuen klaseak prestatzeko, gure esperientzia murritz xamarra bait zen.

Bigarren ikastarorako (otsailatik ekainara) birplanteiatu behar izan genituen talde batzu, Lesakan batez ere, baina ikastaroak lehen bezalaxe aintzinera jarraitu zuen.

Negu aldera ere, ez ahaztu behar, Zabaltzaren erahilketa eta Bortzirietako atxiloketen aurka egin ziren ekintzetan parte hartzea erabaki genuen zalantzetan jarri gabe, AEKk ezin baitu inola ere bere bokazio abertzalea ukatu.

ZENBAIT KANPO EKINTZA

HITZALDIAK

Ikastaro berriarekin batera eta "euskara guztiona eta guztiontzat"en lemapean mintzaldi batzu antolatu genituen Bortziri eta Maldaerrekako herri gehienetan zehar. Patxi San Juan eta Patxi Iñigok eman zituzten mintzaldi haiek eta oraingo euskararen egoera eta euskararekiko militantziaren garrantziari buruz hitzegin zuten batez ere.

ATERALDIAK

Martxo aldera, hiru eguneko ateraldia antolatu genuen Lakuntzara. Han izandako giroa ona izan zen benetan eta AEKko mugimendua gure artean han sumatu genuela erran behar, talde guztiak nahasi egin bait ziren elkar hobekiago ezagutuz.

Apirilan, berriz, Xuberoara joan ginen igande pasa. Ezagutzen ez genuenak harrituta gelditu ginen Xuberoak eskeintzen zizkigun herri eta mendi bazterrak ikusiaz. Jakina da ezagutzen ez dena gutiago maitatzen dela. Guk, orain, Xuberoa gehixeago maite dugu.

GAU-PASA

Eta gure azkeneko kanpo-ekintzak AEKren egunean egindako herri-poteoa eta Donezteberko gau-pasa izan dira. Lehenengoan hogeitamar lagun bildu ginen herri gehienetan ibiltzeko eta bigarrenean (Akelarre eta Zenzerrokek jo zuten) seirehun bat lagun sartu ziren.

UDAN ERE IKASTAROAK

Eta orain, zer? erranen duzue. Ikastaroa bukatu eta udan, zer? Ez dugu, ez, guzti hau zintzilik uzteko pentsamendurik.

Duela bi hilabete harremanetan jarri ginen Donostiako AEKrekin eta Arturo Kanpionekin zerbait egiteko asmoz barnetegi dinamikaren barruan. Positiboa ikusten genuen, alde batetik irakaslegoak esperientzia berri bat izan zezan eta bertze aldetik, mugimendua uda osoan geldi ez zedin. Horretarako Lesaka aukeratu zen, infraestruktura aldetik ongi prestaturik dagoelako (eskolak) eta bertze aldetik giro euskaldun berezia eskeintzen duelako. Horretarako eskakizun bat egin genion Udaletxeari eta baimena eman zigun. Barneikastaro hauek uztaila eta abuztuan izanen dira. Baita ere, Berako Udaletxeak eskeintza ezin hobea egin digu, hau da, Diputazioak bidaliko duen gazte talde bat Berako toponimiari buruz lan bat egiten lagundu eta zuzendu. Hau ere barnetegi gisa izanen da eta hogei eguneko bi taldetan bereziko dira.

Baina, hemen ere zerbait egin behar, jendea prest omen baitago ikastaro intensiboren bat egiteko. Horiei ere erantzuna emateko prest gaude. Ikastaro hauek egunean lau ordukoak izango dira uztailaren 14tik abuztuaren 1era, astean 5 egun emanez.

Hementxe daukazue ba aurrerantzean egin asmo ditugun gauzak. Zerbait pentsatu dugu egitea lantegietan ere, baina ez dago deus finkaturik.

Bertze gai batetan sartuaz, ekonomikoki estu xamar gabiltzala erran behar, nahiz eta aurtengo aurrekontua beteko dugula pentsatu. Dena den, oraindik materiale pila dugu erosi beharra, baina gauzak guk uste bezala ateratzen bazaizkigu zerbait egiteko modua izango dugu. Gai honetan sartuz gero beharrezkoa zaigu eskerrak ematea lagundu diguten guztiei. Alde batetik kanpo-ekintzetan, gau-pasa, etabarretan lagundu digutenei eta bertzetik, dirulaguntza eman edo lakalak utzi dizkigutenei, Lesaka, Bera eta Arantzako Udaletxeei bereziki. Deus eman ez dutenei, zer erran? betikoak direla eta ez dutela aipatzea ere merezi.

Azkenik eta bukatzeko, hurrengo ikastarorako jendea animatu nahi genuke, batez ere jende gaztea. Euskara militante beharean dago eta euskararen barruan murgilduz gero, ez duzue bere eskuen artetik ateratzeko modurik, ez eta gogorik ere izango.

Beraz, hemen dauzkazue gure ateak zabalik nahi duzuenerako. ANIMO!

ARGIAREN HARPIDEDUN IZAN NAHI DUT

IZEN DEITURAK .....

.....

Helbidea .....

Herria ..... *Probintzia* .....

Banku edo Aurrezki Kutxa .....

Sukurtsala .....

Zenbakia .....

SINADURA



ARGIA astekaria
Ramonenea etxea, behea.
Virgen del Carmen, z/g
Donostia (12)
T. 28 33 99

KAIXO NATURA, ZER MODUZ ZAUDE?

Itsasoak zikindurik daude, zerutik euri azidoa dario, ozonoa bukatzen ari da, indar nuklearra ugaritzen dihoa, gure faunako animali asko desagertu dira eta beste batzuetatik gutti gelditzen dira, mendietako zugaitzen kopurua murrizten ari da eta piskanaka, piskanaka basamortuetan bihurtuko dira, honek eguraldiaren aldaketak dakartza, errekak eta edateko urak kontaminatuak, "dioxido de carbono" igotzen, eta abar, eta abar.

Beste alde batetik berriz biztanleen kopurua gero eta haundiagoa da eta etorkizunean begiratzen badugu ugaritzen jarraituko du.

Gauza hauek entzun ondoren, galdera bat zuzendu nahi dizut natura maitea: Zergatik daukazu hainbeste eritasun?

Gauza aunitz dira nere eritasuna sortzen dutenak, baina denak gutti gora behera batuta daude eta hauexek dira: Egoera ekonomikoa, politikoa, soziala eta kulturala.

Orain daukagun sistima sozial honek, bere komunikabidez eta beste gainantzeko espresio bidez baliaturik, gizona kontsumoko bidetik sartua dauka eta ez naute kontutan hartzen ere, nahi dutena egiten dute nerekin, axola askorik gabe, ez didate ezer galdetzen, nerekin zerbait egin behar badute, traste zahar bat banintz bezalaxe ibiltzen naute.

Zuzendari politiko gehienak, nerekin nahi dutena egiteko ados daude, bakarren batek ez dagoela ados esaten badu, "arkaikoa", "antisoziala" dela esaten diote.

Hauentzat andre eta gizonen poztasuna teknolojiaren aurrerakuntzan eta kontsumismoan dago, hau interesatzen bazaie beuren ondasunak mantentzeko, nahiz horretarako "errekurtso natural" guztiak izorratu edo niri izorratu.

Sozialki eta kulturalki berdin, berdin gertatzen da. Gizarteak aspalditik maitatzez utzi zidan, gaur egun nondik neri zerbait kenduko didaten dabiltza, begira ezazu zenbat baso kendu dituzten, zenbat paraje aldatu diren. Zenbat astokeri egin dute!

Garai batean gizon-andere guztiei bizimodua emateko nintzen, baina orain ez,

orain gizon bakar batzuk bakarrik aberasten dira niretaz jabetuz.

Gizonak pozik bizitzeko ez dauka ni izorratu beharrik. Gizartea nere semea da baina ez nau maite, nere etsaia balitz bezalaxe jokatzen du nerekin.

Gizarteak maitatu egin behar nau, nik ematen diotena hartu, nitaz ikasi, baina ez du hori egiten, nahiago du bere diru guztia ni izorratzen gastatu, gastu militarretan, indar nuklearra sortzen eta abar.

Denbora asko da gizona horrela dabilela, baina ordua iristen ari da zerbait pentsatzen hasteko, bakar batzuk aberasten eta mundu honetako gehiengoa ezin bizirik, zenbat hiltzen dira gosez, bloke militarrak indartzen dihoazte, sistima hau ez bada aldatzen laister denok sobera gara.

Natura maitea, zu batzuk aberasteko mehatz bat zarela erran duzu, gizonak zu zenbat eta gehiago hautsiz obeki biziko dela uste duela, politika, kultura eta sozial mailako estruktura gehienak berdinak direla...Baina ez da dena horrela.

Nahiz estrukturak denak berdintsuak irudi, gizon-emakumeok ez gara denok berdinak, andre eta gizon asko gera zugandik ikasi nahi dugunak, zu asko maite zaitugunak, baina berriz ere galdera hau egiten dizut: Zer egiten ahal dugu zu sendatuta ikusteko?.

Begira sema-alabak, nahiz ez gehiengoa izan ni maitatzen nauzuenak bi bide bakarrik dauzkazue: Orain bezala bizi hil arte, edo bestela BORROKATU egoera hau aldatzeko eta horrela poztasunean biziko zarete.

Beratar bat.

EHNE-NAFARROA

NEKAZAL SINDIKATO BERRI BAT

Egunkarietan irakurri duzuen bezala Nafarroan badaukagu nekazal eta ganaduzale sindikatu berri bat EHNE-Nafarroa (Euskal Herriko Nekazarien Elkartea Nafarroa). Apirilaren 26an izan zen lehen asanblada Larraona Ikastetxean. Aretoa tanpetetaraino bete zen. Bertan hautatu ziren lehendakari Juan Manuel Jimenez, nezakaria eta Kaskantekoa, lehendakariordea Mikel Barberena, ganaduzalea, Garraldakoa, idazkaria Bittoriano Jauregui, ganaduzalea, Amaiurkoa eta diruzaindaria Ricardo Gonzalez, nekazaria Sartagudakoa.

Zona bakoitzetako arduradunak ere aukeratuak izan ziren, Baztan-Bidasoa aldetik Juan Jose Txoperena ganaduzalea, Igantzikoa; Sakanatik Fermin Irurzun, Iabakoa, ganaduzalea; Aezkoa-Erronkari-Salazartik Jose Manuel Arrese, Aezkoako Hiriberrikoa (Villanueva Aezkoa) nekazaria; Lizarra aldetik Alberto Orokieta, Ganuzakoa, nekazaria; Tafalla aldetik Adolfo Erro, Mendigorriakoa eta Tutera aldetik Santiago Llorente nekazaria.

Asanblada orokorra aurretik, egin genituen Nafarroan zehar zenbait bilera, bertan ikusi genuen organizazio baten beharra gure interesak defenditzeko, nekazari eta ganaduzalea txikiek dauzkaten arazoak argi eta garbi aztertzeko. Nafarroa guztitik 500 pertson apuntatu dira Sindikato honetara, Baztan-Bidasoa-Maldaerrekatik atera dira 140 sozio, egiz zorionak ematekoa da hainbeste jende ateratzea, nolanahi badago jende gehiago kanpoan gelditu dena eta hemendik eskatzen dizugu lehen bait lehen gureganatzeko, ez bagara elkartzen ezin izanen dugu erakundeek jartzen dizkiguten oztopo hoiei gogor egin.

C.E.E.n sartu gaituzte, inori ez digute galdetu, nahi ala ez gehuen. Erakundeak arro dabiltza esanez azkenean Europiarrak direla eta... dirudi sarrera honekin "ti-

tulo" berri bat hartu dutela. Baino gu, nekazari eta ganaduzale txikiek lehen baino makurrago utzi gaituzte. Noiz ez gero ari gara aditzen Europan sartzeko, gure baserrien estrukturak aldatu behar direla, explotazio rentable batzu egin behar direla eta hainbeste zurrumurru. CEEko ekonomian eta gaur egun ekonomi guztietan rentabilitatea besterik ez da ikusten, lur puska batetan litro esne gehiago ateri, edo haragi gehiago edo garia, eta abar. Adibidez Pariseko zerealista haundiak 5 aldiz laguntza gehiago hartu dute iparaldeko ganaduzaleak baino, honek esan nahi du haundiak izanen direla lagunduak, heuren explotazioak rentablegoak direlako, eta gu txikiek ez dugula "non-bizia"izanen ...

Hau ezin da horrela onartu, guk ere nonbait bizi behar dugu, ez da gure kulpa heuren ekonomi antolatze horrek hori duela oinarri, eta esaten ahal dugu guztiz txarra dela politika hori alde batetik begira ezazue C.E.E.an eraman den rentabilitate politika horrek nora eraman dituen, esnea gehiegi dago, erremolatxa haragia ere, e.a. eta alderantziz ez dago dirurik, asko eta merke produzitzen ikasi dute eta orain sobra hoiek ez dakite non saldu, almazenak jarri behar izan dituzte produktu hauek altxatzeko eta garbi dago hau ez dela debalde ateratzen. Honekin ikusten dugu alde batetik merke ateratzen dutena beste aldetik garestitzen zaiotela. Eta argi dago exzedente hauekin sartu beriak diran bi nazio hoiek kargatu beharko dutela nahiz eta hauek defizitarioak izan.

Beste alde batetik politika honek nekazari eta ganaduzale guztiak pikutara bota nahi ditu, "rentabilitateko" begi bakarratik pasaraziaz. Egia da gure baserriak ez dirala une hontan rentableak, Europa mailan daudenekin jokatzeko, baina zer egin da orain arte hau moldatzeko? Ezerrez !!! eta oraindik gutaz baliatu dira heuren sakelak beteaz, makinariak, abonoak, hotzgailuak e.a. sartu dizkigute Europako mailean jartzeko... eta orain ez dutela balio..

Eta horrela hainbeste ta hainbeste zerrikeri, baino gu beti "pagano" izanez. Horregatik organizazio hontan bildu gintezke gure interesak defenditzeko eta gure lanbidea aurrera ateratzeko.

E.H.N.E.- Nafarroa
Aretoa: Gaztelu enparantza, 32 zenbk.
IRUÑA - Nafarroa
Tlfnoa. 220744

LANGABEZIA BERAN?

LANGABEZIAN DAUDEN, BERAKO BI GAZTEEI ELKARRIZKETA.

Gazteak biltzen diren Berako ostatu batean sartu eta han, lanik egiten ez duen gazte batekin solasten gara.

Galdera.-Zu noski, bada hilabete bat lanbabezian zaudela, ezta?
Erantzuna.-Bai, lehen Ibardinan lan egiten nuen, kantina batean, hango enplegatua nintzen, harategian, ostatuan, denetatik egiten nuen.

G.-Eta nola bada, lanik gabe gelditu zarela, bidali zintuzten?
E.-Ez kontratua bukatu zitzaidan, eta orain lanik ez denez gero, ba...

G.-Denbora aunitz zeneraman han lanean?
E.-Nik lehen bertze lan batean aritzen nintzen, eta harat joateko deitu ninduten, eta nola gehiago irabazten zenuen, lekuz aldatu nintzen; baina joan nintzen leku haretan badut lana nahi badut; gertatzen dena zera da, kortea ematen dizula lehen joan eta orain itzultzea, ulertzen duzu?

G.-Zenbat denbora da ez duzula lanik egiten?
E.-Hilabete eta gehiago; "viva la vida" zertarako lan egin behar duzu, langabezia kobratzen badut?

G.-Zer neurrian aldatu da zure bizitza lanarik egiten ez duzunez geroztik, nahiz eta hilabete bat bakarrik izan, aldaketaren bat sumatu izanen duzu, ezta?
E.-Ah ze galdera! Ez dakit, erran nahi badidazu problemarik izan dituzten edo zerbait horrela, problemarik ez dutela bakar batere errango dizut, nere bizitza ez da ezertxo ere aldatu.

G.-Familiko problemak edo horrelakorik ez al dituzu?
E.-Ez horietatik ezer ez, langabeziak ez dit ezer aldatu; badire egunak tarroa jaten duzula, lanarik ez duzula eta pentsatzen, eta ez duzula deus egiten, baina deus ez gehiago.

G.-Ez al duzu deus egiten, orain lan egiten ez duzula eta? Orain denbora libre haunitz daukazula eta?
E.-Ez, nere lagunekin ibili, edo menditik, deus ez gehiago.
G.-Ez duzu eztare deus bilatu?
E.-Ez, zeren eta hau oporraldi bat bezala da.

G.-Gero gauza estutzen denean, bilatuko duzu ezta?
E.-Horixe bera.

G.-Baina itxaropena baduzu, ezta?
E.-Bueno, itxaropena... ni, nik nahi dutenean hartzen naute; sartzen naiz, ateratzen naiz, udan deitzen naute Ibardinetik; erran daiteke urteak hamabi hilabete baldin badu, hamar lanean eta bi langabezian iragaiten dutela.

G.-Hau da lehen aldia langabezian aurkitzen zarela?
E.-Bai, beti lanean aritu naiz.

G.-Ze adina ezgeroztik?
E.-Ba, hamalau urtetan hasi nintzen, orain arte, hogeitahiru urtetaraino, lanean, beti lanean. Lehen aldia da langabezian aurkitzen naizela.

G.-Langabezian dauden lagun gehiago ba al dituzu?
E.-Bat... bi, hiru, lau eta bortz, bortz langabezian.

G.-Eta ez al dute behinere lanarik egin?
E.-Batek ez, bi eztare, bertzeak nik uste baietz.

G.-Eta zuk uste duzu kezkatuak daudela horregatik, ala pasatzen dire horretaz, arrontian? Gai horretaz solas egiten al duzue?
E.-Lagun bat arront gaizki sentitzen dena, hogei urte du, eta soldadutza egin beharra, lanik gabe, ez du inoiz lanik egin ezta? ezgauza sentitzen da. Nik duten bertze lagun batek gurasoengandik dirua jasotzen du, eta arrontian pasatzen du.

G.-Egitazko problema bat da, ezta?
E.-Bai, denen problema bat da, zeren eta ni batzuetan kabroia eta putasemea sentitzen naiz, bi lekutan lan egiten dudalako, bertze batzuk lanarik ez duten bitartean.



Errudun sentitzen naiz; baina zol zolean batek ez badu bilatzen, nik ez daukat errurik; erruren bat izatekotan bertze bateri nere ordez lanera joatea izango litzake; baina nik ere nere geroan pentsatzen dut, eta gauzak dauden bezala ...

G.-Eta normalki Beran, ala herritik kanpo bilatzen duzue?

E.-Nik beti Beran, beti Beran lana egin dut.

G.-Zuk uste duzu langabezi aunitz badagoela Beran?

E.-Beran? Nik, neretzat, nahi bagenuke lana denentzako izango litzake, bai, bai, etzen langabezirik izanen, bada lana aunitz mendian, baina jendeari etzaio gustatzen, ezta niri ere, ni ez noaie.

G.-Baina mendian zer egiten duzue?

E.-Lan gogorra da, pinuak mozten dituzu eta horrela. Ni ez bazen bertzerik joango nintzateke, baina nola baduten... gertatzen dena zera da: lana eskatzen ari den bateri ez diozu lan hori eman behar, nagusiek erantzuna ematen duen jendea nahi dute, lana egiten duena; lehenengo oportunitatea deneri eman beharko zitzaion, hori noski.

G.-Erran diguzu, Herriko Etxeak noizik behinkako lana ematen duela baitare, ezta?

E.-Bai, baina betikoei, entxufatuei, betikoak.

G.-Hau da, gazteei ez, ezta?

E.-Niri Herriko Etxeak ez dit egundaino lanarik eman, baina bertze jendeei eman liezaiekete; joino, ongi iduritzen zait ezkonduta eta semeak dituen gizon bati lana ematea, baina bada jendea ez dela horrela, eta Herriko Etxeak aldatzen ez duena, eta aldatu beharko zena; baina gazteak ere errudun dire, Herriko Etxera joan eta, zer gertatzen den erraten ez dutelako, hau da: beti berdinak hartzen dituztelako.

G.-Baina jendea mugitzen da bilatzen?
E.-Bada jendea baietz, eta jendea etzez, denetatik. Nik ez dakit, ni ez naiz mugitzen; Urtarrilan gaude, badakit bi hilabete buruan lana egingo dutela; bi hilabete lasai gelditzen naiz, eta horixe da, ekonomi aldetik ez dut problemarik, ez dut inongo problemarik eta kitto, bi hilabetez BIZI, gaztea naiz oraindik, hogeitahiru urte dut; mugitzen bazara, jeitxun zihur nago lana aurkitzen duzula, bertzelaz ez.

Langabezian dagoen gure lagunaren lagun bat agertzen da, eta keinu batez gurekin biltzera gonbidatzen du. Hogei urte du, langabezian dago baita, eta arreba ttikia zaintzen du.

G.-Begira, langabeziari buruz lan bat egiten ari gara, eta zure lagunak, langabezian zaudela erran digu; ez duzu egundaino lanarik egin ezta?
E.-Bai, ostatuetan lana egin dut, baina noizean behin, eta hori ez da lana egitea.

G.-Eta ez duzu zerbait aurkitzeko itxaropenik?
E.-Beno, itxaropenik ez, Laminazionesen lanean aritu naiz orain, hamabortz egunez, aspaldidanik izena emanana nuen, eta deitu zidaten, bat oporretan joan, eta norbait behar zutelako.

G.-Zure lagunak erran digunez, zuk arront gaizki ikusten duzu hemengo langabezia.
E.-Hemen bai, hagitz gaizki, jende aunitz eroria dagoelako, eta dirudienez urtetik urtera jende gehiago ikasketak uzten ditu, aurten jende multzo bat.

G.-Zergatik uste duzu, ikasketak utzi dituztela?
E.-Ba, ez dakit; bada baita ikasten ari den jende aunitz bertzerik ez delako ari dena.

G.-Zuk ikasketak aspaldian utzi al zenitun?
E.-Bai, urte sail bat bada, hiru edo lau urte.

G.-Zerbait aurkitzeko itxaropenik al zenuen ikasketak utzi zenituenean?
E.-Beno, ostatuan lanean ari eta, eskolera joaten ez nintzenean, harat joan, eta orduan hasi nintzen; Oronotzen barneikasle nengoen; udan bai, uda osoan lan egiten dut.



G.-Eta zer egiten duzu, beti etxean gelditu?
E.-Ez, aldierantziz, ez dut etxean irauten, beti ehizian, arrantzan, kirola egiten: orain laister egiten hasi naiz, eta hor barna lekoratzen.

G.-Bertze batzuk, bertze gauzak egiten dituzte, adibidez drogan zerbait bilatu; problema hau nola ikusten duzue hemen barna, ba al dago drogarik Beran?
E.-Bah! Bada, baina ez, ez aunitz; guk ematen diogu aunitz txupeteari, edariari, baina drogarik ez. Gero atsekabeak izaten dituzu, soldadutzara joan behar duzula eta, pentsatzen duzunean; nik adibidez aurten joan behar dut eta... denbora guztia deus egin gabe zaude, eta gainera esperatu behar, bertze urte bat deus egin gabe egoteko.

G.-Eta etxean ez al daukazu problemarik?

E.-Ez orokorki, ongi eramaten dugu, ez nago inoiz etxean...

G.-Zure gurasoek ez al dizute behinere deus erraten?

E.-Bai, erraten didate beti karrikan nagoela eta hori, baina zera da: ez dutela irauten, ezin naiz egon.

G.-Baina ulertzen zaituzte, ez da?
E.-Bai, nik uste dut baietz.

G.-Ez al daukazu anai-arrebarik langabezian?
E.-Badut etxean bat, gutunez elektronikako ikastaro bat egiten ari dena; gero arreba ttikia eta bertze bat hemen, Lanbide Eskolan ikasten ari dena; ni zaharrena naiz.

G.-Guk pentsatzen dugu, langabezian dagoen jende aunitz, tetelduta bezala dagoela, iduri du berdin zaiela igandea izatea ala astelehena ala edozein egun, edo lasaixamarrak bihurtzen direla eta nagikeria nagusitzen dela lanean hasteko orduan, zer iduritzen zaizue?
E.-Noski hor etzaudete ongi.

G.-Izan daiteke zure kasua ez izatea; heuren gurasoekin bizi direnetaz, haiengandik dirua jaso eta denetaz pasatzen duten gazte horietaz ari gara.
E.-Bai, hortan bai zuzen zaude. Denetatik badago. Problema guztia datza, lehen oportunitatearen exkasian gaudela, gaur egun jende gutti aski da lana egiteko, eta gainera esperientzia eskatzen dizute, horrela bada ez dizute hasteko oportunitaterik ematen.

G.-Ez duzu egundaino planteatu mendira lanera joatea?
E.-Niri berdin zait edozein gauza, langabeziko zerrendan izena emana dut Donezteben; hemen Herriko Etxean jendea hartzen dute, gertatzen dena zera da: jende gutti hartzen dutela eta jeitxun beti berak; horrela bada, posibilitate urruna da.

.-Bueno, eskerrikasko denagatik.

Gure lagunak agurtzen ditugu, eta azken hau, bere arrebatxoren zain uzten dugu, berehala etxean jatera eman behar diolako.

****

MARIA ERRAZKIN ELIZAZU
ELVIRA HERNANDEZ VICENTE
Mª CARMEN PORTUGAL GOIENETXE
EMILIO RUIZ GARCIA
TTipi TTapakoek euskaratua.

DONEZTEKO PEDAGOJI EZTABAIDA

"EUSKERA", HIZKUNTZA BAT BAINO GEHIAGO!

1984-1985ko kurso amaiera, Doneztebeko eskolan, konstatazio batetara eragin zuen zenbait maistra-maisuei: hizkuntza aldetik eramaten zen lan pedagojikua, bere helburuak ez zituela betetzen: Ume euskaldunak bai, gaztelania ikasten zutela, baino ez, alderantziz, gaztelauak euskera. Onartua zen elebitasun helburua -hau horrela zelaez zen betetzen eta goiko instantzietara horrela azaldu zuten.

Euskera menperatzeko beharrezkoa ikusten zuten -gehienak, ez guztiak- beste plangintza bat:

Euskera, eskola aurreko hizkuntz bakarra bihurtzea -gaztelauak jarraipen berezi baten bitartez lagunduz-;

Bigarren mailan, euskera hizkuntz basikoa mantentzen zela eta gaztelauentzat lehen aipatutako laguntza berezia jarraitzen, euskeraz landu behar -inguruko herri eskoletan egiten den bezala- gero, hirugarrenean, denak hizkuntz bietan aritzeko. Hau da, lehendabiziko plangintzan betetzen ez zen helburua lortu: elebitasuna, hizkuntz biek menperatzea.

Orain arte, gutxi gora behera, dena normala dugu. Heziketako profesional batzu nola beuren helburua lortu eztabaidatzen dute. Ez datoz denak ados -hau ere normala- baino matematika tradizionalatik berrira ez zen egun batetan pasa ere... Kontxo! Hor dugu Don Quijote: "Con el vascuence topamos, amigo Sancho", esanez. Zeren bapatean, Aste Santuaren ondoren, hor datozte Ministeritzako agintariek, bigarren plangintza hori besapean dakartela.

TXIMISTAK,TROMOIAK EDO ORTOTSAK, EKAITZAK ETA TORMENTAK !!!

Zurrumurru edo gurgura bat zabaltzen da hain baketsu diran herri hauetan: Donezteberko eskolan gaztelania kendu behar dute... dena euskeraz egin behar omen da.. Bai?.. Gure neska -mutikoak ez dute gaztelanirik ikasiko neskatotara edo soldaduskara joan arte...

1986ko urtean gara, ala 1950ean? Sobera gaurreguneruntz etorri naiz zeren plangintza berriren aurkakoak diren guraso gehienak ez dute -nere ustez- seme-alaben egoera bizitzen, beurena baizik. Burura etortzen zaie bizi izan zituzten zailtasunak, lotsak, espresatzeko inkapazidadeak, ezposibleak...

Mutikoa eskolara hasi zenean -esaten zidan ama batek- gaztelania bakarrik erakusten zen, eta maisuak ez zuen euskerarik ezagutzen... Letzen ikasi hasi eta kartillak asto bat erakusten zuen b adierazteko: umeak ezin ulertu!... Bigarrena jaio eta erdera erakusten saiatu nintzen, oztopo berdinekin ez topatzeko, eta hara nun gero, eskolan hasten zirenak, euskeraz hasten ziren. Baino beraK, neskatoaK, beti erderazaletasuna gorde du, nahiz etxean euskara hitzegin... Txikia zala, Donezteberа bidaltzeko punttu-punttuan egondu nintzen, gaztelania ongi ikas zezan, baino urruti zela, autobusean ibili beharrak....

Hirugarrenak berriz, bietan aritu eta aditua da, euskeraz batez ere, eta biak erabiltzen ditu nahiko ongi - euskera hobeto- sei-zazpi urte ditula...

- Ez dugu euskera maitatzen ala? Ez zaizu beharrezkoa iduritzen?

- Bai, bai! Euskera hagitz maite dut eta erdera hagitz beharrezkoa ikusten dut. Ez dut nahi umeak gaizki pasa dezan!

- Zerorrek oso gaizki pasatu zenuen erdera ikastera bortxatua izan zinenean?

- Bai!, baina baserritarra nintzelako gaizkiago pasatu, zeren herrikoak bazuten mesprezio antzeko zerbait baserritarren aurka...

- Baino, eskolako plangintza berriren aurkako karta sinatu zenuen...

- Bai, gaizki informatua negoelako. Orain ados naiz baino zera iduritzen zait, guraso gehienak ez dutela ongi ulertzen zer planteiatzen den eta hori posible denik sinistu ezta ere, bai euskera bai erdera menperatzea ahal izango dutela umeek.



Ez dute ongi esplikatu...

- Eta hortik aparte, sortu den edo duten giroaz?

- Hori? Lotsagarria. Bata besteari zikinkeria botzea besterik ez da, eta ez euskera dela edo ez dela, baizik eta lehen zituzten haserregatik izanen...

Zeren garbi dago hizkuntz arloa baztertu dela, edo iparra galdu dela. Ez da eztabaida pedagojiko eta arrazoizkoa eraman. Ekaitz barrengo ortotsak nagusitu dira, pertsonalismoak eta zentzu txarreko politizazioak.

Lehen hitzegin duen amak esaten zuenez, linea bakarra uztea lapurketa bezala bizi izan omen zuten, erdera ikasteko deretxua edo eskubidea galtzea.... Zentzu horretan hitzegin zuen Guardia Civil baten emazte batek, beuren leku aldaketasunaren maiztasuna adierazten. Ulertu ere, dirudienez, ulertu zuen bere umeakez zuela oztopo handirik izango... Etsai handienak barrengoak, berriz ere.

Talde politikoaren siglak dantzan hasiak dira, hauteskundeak atarian, eta berriro, euskera jostailu. Inor ez da euskeraren aurka azaltzen, baino ... sinplekeritan aritzen ohituak, talde edo tendentzi batekoak plangintzaren alde ateratzen badira.. derrigor txarra izan behar. Gaztelania desagertu nahi izanen dute... Navarra Euskadi bihurtu, Euskadi sozialista eta gorri batetan sartu... Doneztebeko eskolataz ari ginan? Hizkuntza batetaz?

Atzo, 1986ko maiatzaren 19an, Ministeriko delegatuakin afektatuak diren gurasoak bildu ziren berriro. 28 gurasoetatik, Pascual jaunaren hitzak adituz geroz, 5 batek sinatua zuten, 8ak inguruetan, gaztelania eskola hutsarako eskaria, eta beste 4 zalantzan ziren. Sinatua zuen batek, pedagoji aldetik zera esaten omen zuen: "Al burro hay que enseñarle desde pequeño"... Makilkada ederrak emanez?...
¿La letra con sangre entra?.

Doneztebeko dendak tertuliak bihurtu dira, taldetxoez bete, eta hutsunez ere... kolpeka ari omen dira batzuk, agurra ez ematen besteak.. 19 goizean, Mª Jesus Perurenak bonba baten abisua hartu omen du..

Ondoko ipuia, Doneztebeko ume batek idatzia den ipuia, irakurri ezazute...
Euskera maite!

Juainas.

"KEPA ETA ANJELAREN" ELKARRIZKETA

Bazihoan Kepa eskolara eta orduantxe bere laguna Angelarekin juntatu zen. Kepa euskalduna zen eta Angela erdalduna.

- Kaixo Angel -erran zuen Kepak.
Angelak haserratuta erran zuen:

- Como Kaixo! aqui hola y nada mas.

- Bainan Zergatik erderaz! erran zuen Kepak. Euskal Herrian gaude ala ez?

- Bueno, hablare en Euskera porque si no ya se que no hablaras conmigo, ademas quiero hablar de este tema con alguien. Erraten ari naizen bezala hau ez da Euskal Herria hau Nafarroa da. Eta gainera euskeraz solastea txorakeri bat da. Erran zuen Angelak.

- Nafarroa Euskal Herrian dago -erran zuen Kepak-. Politikoko ez, bainan Euskaldun guztien bihotzean bai, eta gainera euskera oso polita eta interesgarria da eta euskera atsegin ez bazaizu, ze demontre ari zara Euskal Herrian! Zoaz zure herrira.

- Baina nola, erran dezakezu hori, gainera euskera gutxi dago eta espero dut akitzea. Erran zuen Angelak.

- Bai, gutxi dago Frankori esker, baina gero eta gehiago dago eta ez da inoiz akituko; eta jakin nahi baduzu Nafarroa Euskal Herriko beste probintzien ama da. Eta ez dute, ez politikak eta ez erdaldunek hori kenduko erran zuen Kepak.

- Baina, Nafarroa ez dago Euskal Herrian. Eta ikusiko duzu nola desagertzen den. Erran zuen Angelak.

- Bai, ikusiko dugula! Ikusiko duzue, zuk eta erdaldun guztiek zeren ez dago bertzerik Euskal Herria eta euskera bezalakorik, ez dut erraten beste hizkuntzak txarrak direnik, baina , zergatik ez gaituzte uzten pakean gure hizkuntzarekin? Erraten dizudana: gora Euskal Herria eta euskera, inoiz desagertuko ez den gure hizkuntza!

Angelak arrazoirik ez zuela ikusi zuen eta erraten den bezala hitzik gabe utzi zion. Hau gertatzen zaio euskeraren aurka hitz egiten duen pertsona bati.

EMAKUMEA

ETXEKOANDREA LANGILE

A.Z.

Behin "Simone de Beauvoir"ei erran zioten ea ados egonen zen etxeko lanak egiteagatik emakumeei ordainduko baliote. Eta berak hau erantzun zuen:

"Ez, ez nago ados ezta pentsatu ere. Hori egitean emakumea oraindik zokoratuago eta etxe zuloan denbora gehiago pasatzera behartuko bait litzateke. Ez, ez nago ados ez ni eta ezta emakumeen mugimenduko lagunak ere. Horren bidez, emakumeak etxean egon behar duten ideia indartu besterik ez baita egiten eta ni horren aurka nago.

Gure ustez, edozein pertsonak gizon, emakumezkoa izanda ere, kanpoan lan egin beharko luke eta beste aukera batzuk izan; erratebaterako, taldean bizi eta familiako organizazioa beste era batekoa izan, hain zuzen ere haurren ardura eta arazoak konpontzeko"

Baina emakumeak etxetik kanpo lanik egin behar al du? Batzuk baietz erraten dute, gizonezkoak duten eskubide berak dituztela, besteak berriz, ezetz. Dena den, egi handi bat dago: EMAKUME GUZTIAK LAN EGITEN DUTELA.

Gertatzen dena hauxe da: etxeko lanak ez direla lana bezala konsideratzen. Gaur arte emakumezkoei etxeko lanak egitea dagokio, ama izatea edo ezkontzea bezalaxe. Eta egia erran, lan hori merkatuak eskatzen duen prezioan inoiz ere ezinen litzateke ordaindu.

Hala ere, zergatik erraten da emakumezkoak ez dutela lanik egiten? Emakumezkoen egin beharra dela pentsatzen baita etxeko lanak egitea, bere sentimentuen barnean dagoen zerbait dela eta lan hori ez dela beste edozein langileren lana bezalakoa. Aunitzetan, emakumezkoa jornala irabazten aritu arren, etxera itzultzean etxekoak egiten hasi behar du.

Gaur egun, etxeko lanetan horrela aritzeak, emakumezkoari ez dio batere laguntzen, ez gizarte honetako partaide izaten ezta gizonezkoek duten aukera berdinak edukitzen. Emakumea etxean egonez gero, etxeko lan guztiak egiten ditu. Kanpora ateraz berriz, kanpokoak eta etxekoak.

Eta etxekoak ez baditu egiten beste emakumezko baten gain utzi dituelako izaten da, gehienetan (ama, izeba,..) familikoren batetan.

Baina, arazo hau ez da konpontzen erranez etxeko lanak egiteagatik emakumezkoei ordaindu egin beharko litzaiokela. Zeren eta horrela, emakumezkoei itxekiko balitzaioke lan hori eta..
ez! Denok aukera berak izan behar ditugu. Eta hortarako ttiki ttikitatik, eskolan, etxean, gizartean ez litzateke neska-mutilen artean diferentziarik egin behar.

Etxeko lanak egin beharrezkoak dira, norbaitek bazkaria prestatu, haurrak zaindu, etxea, arropak garbitu behar ditu. Baina ez du zergatik emakumezkoaren lana izan behar.

Etxeko lanak denon artean egitea aukera bat da, bestea zerbitzu egokiak edukitzea eta bestea gizonen eta emakumezkoen artean dauden harremanak aldatzea.

CENCEROCK

DONEZTEBEKO ROCK TALDEA

Ez da egunero gertatzen, gure errekan, talde bat elkartzea, instrumentu batzuk hartu, martxa eta humorea jarriz, musikaren bidetik abiatzea. Horixe bera egin du, Doneztebeko gazte talde honek.

"Cencerrok"ekin gaude, bere "laboratorio" edo entsaioak egiteko txokoan. Erraten didate toki honek baduela lehendik musikarekin zer ikusirik. Garai batean herriko "bandak" hemen egiten omen zuten bere entsaioak, oraindik badaude, paretetan zintzilika, bi sari "banda" zenak irabaziak, Cencerroken dekorazioarekin kontrastatuz (ACDC, Akelarre, Barrikada, etab.). Paretak kortxoz estaliak, bizilagunez ez daitezen rokera sobera afizionatu. Gelaren erdian, bateria, gitarrak, anplifikadoreak, mikroak, en fin, badirudi, hemen zerbait egosten dela.



Hemen daude: karmelo taldeko ahotsa, Zarbo, gitarra, Zarzailo gitarra eta "fans" kuadrila bat; Sanba, bajoa eta Oskar bateria falta dira.

- Nahiz eta taldearen izena, oso adierazgarria izan azaldu ezazue ze musika ari zareten egiten.

- Cencerrok: Ba, beno, nahi dugu rok gogorra egin baina melodia gehiagorekin, ez dakit,ez "kaña" eman denbora guztian ... ez heavy, eh? ez hori ez, gurea rok da, rok gogorra.

- Zein talde gustatzen zaizue?
- Cencerrok: Udako arratsalde batean, joan den urteko arratsalde batean, katxondeoz hasi ginen, jazz gitarra zahar batekin, bajo kaxkar bat eta bateria edo honelako zerbaitekin.

Lehenengo garai honetan, Zarzailoren osabak, Jose Luis Olaizolak, utzi zigun dena, anplifikadoreak etab., oso ongi portatu zen, baina ikusten genuen kondizio horietan ezin genuela jarraitu eta aurrezki kutxara jo genuen, prestamo bat eskatzera 125.000 pezetatakoa, oso merke eman ziguten, eta diru horrekin eta gu jarritakoarekin erosi genuen hau; anplifikadoreak, pedalak, afinadoreak, partxeak etab., bertze aldetik gitarrak, bajoa, mikroak, bakoitzak bere poltsikotik.

- Hurrengo urratsa zein izan zen?
- Cencerrok: Tokia bilatzea entsaiotako, eta bertze talde batzuekin kontaktoan jartzea. "Eros" taldeko bat genuen erdi ezaguna eta horrela konektatu genuen heurekin, gero "Camelot"ekin. Talde hauen laguntza, oso baliagarria izan da, gauzak erakutsiz, anplifikadoreak erosterakoan eta horrela.

- Musika arloan lehen zerbait egina ba al zenduen?
- Cencerrok: Bum! Ba! To! Buenooo. Eh! nik lehen jotzen nuen gitarra mezetan.

Eta nik txistua, beno eta solfeo, denok dugu solfeo base bat.

- Eta instrumentoak?
- Cencerrok: Bajoa, bateria eta ahotsa, pixkanaka, ikasten jarri dira, batekin eta bertzeekin; ikusiz, galdetuz eta orduak sartuz.

Dena dela, anitz aurreratu dugu, hasierakoa ikusirik, buf! lotsa ematen digu.

- Nola egiten dituzue musika, abesti berriak...
- Cencerrok: Hauek,hauek! (Erraten du Karmelok, Zarbo eta Zarzailorengatik.
- Zarzailok: Beno, Guk ideia bat ekartzen dugu eta gero hemen denon artean lantzen da, probatuz, batzuetan aldatzen joaten da.

-Nork egiten ditu letrak?
- Cencerrok: Hau, hau dugu poeta (denak Zarbori begiratzen diote)
- Nola egiten dituzue letrak, euskaraz, erdaraz, planteatu duzue zerbait horri buruz?
- Cencerrok: Beno, erdaraz dira, gero itzultzen ditugu eta ez badira gaizki gelditzen ba euskaraz. Euskaraz zenbait eta gehiago kantatu, ba hobe.

Borroka berdina dela euskaraz edo erdaraz pentsatzen dugu (Karmelo)

Neri euskaraz kantatzea anitz gustatuko litzaidake, baina badago jendea ez dizuna euskaraz ulertzen eta hemen sartua dagoena, gu bezala (Zarbo).

- Zeintzu dira zuen arazo gogorrenak

momentu honetan?
- Cencerrok: Dirua !!! (Denak batera) Zorra besterik ez daukagu eta horiek ordaindu behintzat, dirua prestatu diguten lagunei.

Batzutan deitzen digute, ekipo eta guzti jotzera joateko eta orduan furgoneta bat behar dugu, hori ere problema da.

Ekipoa baldin badago, jo behar dugun tokian, Akelarrerekin bezala adibidez, orduan, instrumentoak bakarra eraman behar ditugu eta edozein kotxetan sartzen dira.

- Aktuazio kontuan sartu garenez, ze tokitan jo duzue orain arte?
- Cencerrok: Beno, ba "Goren Garden",

Miami...
- Eta hemen hurbilago?
- Cencerrok: Ah! hemen!... Donezteben hurbilena eta urrutiena, Ultzaman. Erratzu, Bera, Mugaire, Almandozen ere jo izan dugu eta toki batzutan behin baino gehiagotan.

- Zenbat abesti dituzue orain zuen errepertorioan?
- Cencerrok: 12ren bat. Hauetatik, lau ez dira gureak baina bertze denak bai. Hasieran bertze taldeen abestiak jotzen genituen, baina gero eta gehiago gureak. Badaude bi abesti hasieratik jotzen ditugunak: Bob Sigerrenaa eta Klap'ena.

- Animatuak uda guztian egurra emateko? Zeintzuk dira zuen baldintzak, aktuatzeko orduan?
- Cencerrok: Jendearen laguntza morala eta jotzen dugun tokian barra librea edukitzea eta hortik goiti nahi dutena.

- Eta zuekin kontaktuan jartzeko?
- Cencerrok: Karmelori deitu telefono honetara: 594153.

S.O.S.

Lemoniz, dirudienez, ez da egingo, baino Chernobylena gertatu ondoren, argi eta ez-oso-garbi dago: nahiz urruti egon, nahiz herri txiki batetan bizi, fida zaitez, majo! Leherketa dela, lainua dela, egurrak janariak... Zer ez?

Zenbat eta denbora gehiago pasa, boterea -ezagutzen ez dugun gauza hori- handitzen eta urrutiratzen ari zaigu. Madrilgo gobernua -esaten denez- aukeratzeko posibilitatea dugu, eta mila legora lehertzen den nuklear trasto bat gure biziaz jabetzen da. Zer gera gu? Pailasoak?



Edo besteena, Jon Waynena... Terroristak etsaiak omen dira. Bera dugu aingerutxua, salbatoreak... eta horrek, zeren beti arrazoia eta egia bere aldekoa duen, Libia-Gadafi edo beste edonor zigortu dezake... gaiztoak direlako, bihurriak,... edo berrebiletan, potroetan, jartzen zaiolako. Eta gu hemen, berriro ere, erdi-erdian...

Lekua, momentua ez dela? Koño! Antiterrorismo zabal-madarikatu hori Inkisiziofaszio bat bihurtzen ari da, edo zen?

Bere barru sakon horietan edozein, edonor eta edozer irauntzi dezake.

Edozein, edonor eta edozer bedekinkatu..

Terroristei ezartzen zaien ezaugarriak: mesianistak direla, demokrazia ez dutela errespetatzen, eta abar, goizeko ispiluan ikusitakoa dirudi, bizarra kendu gabeko bere aurpegia...

Zein da nere, zure, legeztatutako eskubidea? boto, txartel, paper bat -azken funtsean- eman. JA-JA!

Baino nahiz mila, edo miloika bota, beti azaltzen dituzte zeru-arrazoiak,
jakin ez dezakegun errealitateak gordetzeko,
Otanen egoteko,
nuklearrak eraikitzeko,
armamentismoan jarraitzeko,
zergak handitzeko,
eta bakoitzaren intimitatea ez errespetatzeko...

Non? Nere eskubideak non dira?

S.O.S.

Izenpetzen dutenek, Etxalarko bizilagunek, herriko Udal agurgarriari:

Etxalar herrian euskaraz hitz egiten da, eta badira, euskaraz aparte bertze taz mintzatzeko eta konprenitzeko gauza ez direnak, eta bertze batzu hagitz nekez.

Guk euskara amagandik hartutako hizkuntza dugu, gure gurasoen eta aintzinekoen hizkuntza, gure herriaren hizkuntza; erdal gaztelera berriz kanpotik eta gainetik inposatu diguten hizkuntza da, eskolatik hasita, zerbitzu publikoetan, estaduaren enpleiatuen aldetik, etab.; azken mendeetako historia zerbait jakitea aski da horretarako.

Hori horrela izanik, ezin dugu ulertu, ez eta ere noski onartu, Udal horrek egiten duena: idazki paper guztiak erdaraz egitea, erdara hutsez; eta guttiago ulertzen dugu alkatesa andreak (ez dakigu bere buruz ala Udalaren iritziz) egiten diguna: euskaraz idatzitako paperak ez onartu, eta, bidali ez balira bezala, zokoratu; joan den astean hori garbi ikusi dugu: Etxalarko kultur taldeak instantzia presentatu du, eta sekretarioak seilatu zuen. Baina gero alkatesak erdaraz egiteko agindua eman zuen. Eta euskaraz egina ez du "orden del dia"n sartu.

Zergatik bortxatzen du Udal horrek herriko jendea, hizkuntz harrotzez idaztera eta irakurtzera behartuz? Ez da hori Etxalarko jendeari errespetorik ez edukitzea? Ez da hori gure ama gaitzestea?, gure gurasoek utzi diguten gauza preziatuenari irri egitea? Ez da hori gure herriaren izaeraren eta kulturaren zutabe eta alderdi baliotsua zanpatzea eta baztertzea?

Badakigu jokabide horiek, aintzineko urtetako ondorio direla: bereziki gerra ondoko diktadura denborako lege eta ohituren ondorio, baina baita ere uste dugu, ohitura eta lege horiek aldatzeko ordua dela.



Jokabide normal eta egokia, jendearenganako begiruneak eskatzen duena bertze honelakoa behar duela iduritzen zaigu: solasez bezala, paperez ere euskara erabiltzea, eta erabiltzen duena onartzea, denok dakigu zenbat eta zenbat lekutan horrela jokatzen duten Udalek gero eta gehiago.

Hori dena kontutan izanik, hauxe da Udal agurgarriari zuzentzen diogun eskaria: berriki bidali zaion euskarazko idazkia onar dezan, eta aintzinera, nahiz euskarazkoak nahiz erdarazkoak onartuz gain, erantzunak ere eta herrian banatzen dituen komunikatu guztiak, bietara egin ditzan: euskaraz eta erdaraz.

Arrazoizko delakoan gure eskakizuna, Udalak pentsatu eta aztertu duela espero dugu. Eta bere baiezko erantzunaren zai gelditzen gara.

80 sinadura.

HAUTESKUNDEAK DIRELA ETA...

Udaberria dastatzen hasi besterik ez dugu egin, uda urrun dago oraindik eta udazkeneko arratsalde bero eta baketsuak ezin ditugu usaindu ere. Baina hauteskundeetarako 5 aste baizik ez da gelditzen.Egia da. Eta egia da Gonzalez Marquez jaunak posibilitate hori "ikusten" ez zuen arren, murgilduta gaudela jadanik hauteskunde "aurrekanpaina"ren erdian.

Eta garrantzitsuak dira, oso garrantzitsuak PSOE hauteskundeak aurreratzera behartu duten arrazoiak.

Urteetan barna izan duen garapen politikoa dela eta, espainol estatuan eta bereziki Euskal Herrian sinesgarritasuna galdu du.

Mugimendu langilearen banderaduna izan zena, orain kapital handiarena da. Hau da bere sinesgarritasuna galtze progresiboaren arrazoi nagusia.

PSOE behartuta dago OTANekiko baietza erabiltzera, honek bere erabilgarritasun elektorala galdu baino lehen. Gainera badago "kanpo" eskakizuna produkzio sektore ezberdinak desegiten segitzeko eta honela "hamabien plangintzara moldatzeko.

Ez da PSOErentzat mesedegarria ere (eta mota guztietako presioz saiatzen da eragozten) HB-PNVren arteko "elkarrizketak" direla eta, Pacto de Legislatura delakoa abortatuko lukeen egoera.

Aipatu behar dut ere nola aurreko arrazoien ondorio zuzenez handitzen doan Herri Batasunaren sinesgarritasuna eta protagonismo politikoa, eta PSOEK ongi daki Herri Batasuna dela benetan kontrako politikoa. Erreforma Euskal Herrian gauzatzea ezinezkoa egin duela garbi dago.

Nafarroatik esan ahal dizuet nola ari diren batzuk "sondeos de opinion" direlakoak (beti haien aldekoak izanik) erabiltzen, botuemaileei "gogorazi" nahiean haiek existitzen direla oraindik, zeren legislaturan zehar duten errealitate triste eta desitxuratuak ez bait die uzten bizitza politikoan parte hartzen, ikusle gisa ez bada.

"Rol" hau E.E.ri dagokio, PNV "ofiziala"ri bezalaxe.

Beste tratamendua behar du berriz bere garaian "la izquierda revolucionaria al Parlamento" autoizendatu zirenak (Auzolan), Batasuna eta unitarismoa nahasteak eta botu abertzalea neurri batetan sakabana-

tzea lortu zuen proiektu politikoa eskeintzeak, aurretik ikusten zen kostu politikoa izan du.

Bere egoera delikatua da, eta bizitutako esperientziak determinanteak izan daitezke ez bakarrik oraingo, baita geroko ere.

Bat ere ingerentzia edo paternalismo asmorik gabe, zerbait esan nahi nuke sen ona nagusi dadin. Ez zait oker iruditzen esatea Euskal Nazio Askatasun prozesuari aportatzeko ezinbestekoa dela Alternatibaren "betiko alternatiba" izatea.

Hemen Nafarroan, Hegoaldeko beste herrietan bezala, Herri Batasuna da Hauteskunde hauetara hausturarik gabe aurkezten den indar politiko gutxienetako bat. Bere barne demokrazia garatuz eta bere linea politikoaren koerentziaz indartua.

Hauteskunde honetan benetan oso problema handiak ez dituztenak, dirudienez, PNVko Nafar "expulsatuak" dira.

Gerta liteke haien jokaeraz, "berrien zai" dauden bitartean eta autonomikoak heldu arte, nahiz eta aukerak eliminatzeagatik bakarrik izan, zerbait "nabaritzea" botu abertzale iraultzailean.

Lehen aipatzen banuen PSOE mugimendu langilearen banderadun izatetik kapital handiarena izatera pasatu dela, azpimarratu behar dut ere PSOEk bere "aldaketa" programan bete duen promesa bakarra dela. Gaur egun ez zaio inori zalantzarik gelditzen, PSOE "aldatu" egin da.

Nafarroan eskuineko UPN, benetazko eskuin españolista indarrekin dago aliatuta, eta honen ondorio logikoaz, burrukatzen dute, ez bakarrik kandidaturak osatzeko, baita ere base soziala erakartzeko.

Lurralde hauetan PSOEk ez du PNV batekin konpetitzerik, honengatik bere aliantzak eskuineragokoak dira. Hala PSOE nola UPN elkarrekin zein eroso dauden lekuko daukagu Jaime jaunaren "cantada" Iruñeko udalean, oraindik hurbil dagoen Batzarre Nagusi batetan.

Jaime jaunak "gogoratu" zion PSOEri ez dutela ahaztu behar 1985eko aurrekontua UPNren laguntzaz onartu bazen, izan zela, Herri Batasuna, "comision de gobierno" delakotik kanpo uztearen truke.

Hona hemen PSOEren sozialismo "praktiko" aren azalpen garbia. Hau da Euskal Herriko gaurko panorama politikoa, eta boto emailea da orain hitza duena.

J. Etxebeltzea.

UDALAK GALDU, DIPUTAZIOAK IRABAZI ETA HERRIA AHULDU.

Orain artean, Nafarroako herrietako sanitarioak, hau da, medikuak, erizainak, farmazeutikoak, albaiteroa... udalak izendatzen zituen, udalaren eskutan zeuden. Beraz, heuren aginpean aritu behar zuten eta horrela azaltzen da 1981ko Nafarroako Udal Administraziorako Erreglamentuan.

Zer gertatu da orain arte? Bederen gure ingurutako, herri hauetako berri eman dezakegu eta behar bada zera, Nafarroa osoan ere horrela izan dela erran.

Herriko etxeak, bakarrik medikua, erizaina... izendatzeko orduan bildu izan dira. Zenbait paper bete eta sanitario eta bat edo bertze berezi. Eta, berezi ondoren inoiz ez dira heuren eginbeharrez arduratu. Gehiena ere medikuari etxea ongi moldatzen saiatu izan dira eta ez dira herritarren osasun beharrez arduratu. Bazirudien udalak eskuak garbitzen zituela; "badugu medikua, erizaina eta hor konpon" Heurek jakinen dute zein lan egin behar duten. Udalak beste lanik ez du sanitario hauei soldata eman eta kitto!. Inoiz ez diote konturik eskatu, ezta galdetu ere zer egiten duten. Ezta, jendea zertaz eritzen den, ez! Nonbait sanitarioei ezin zaie konturik eskatu. Sanitarioek ez al dute herriaren serbizioan egon behar ba? Sanitarioak!!!

Bitartean, herritarrak... zera, medikuak, erizainak ongi egiten badio, hau da irripartsu atenditu, eriak berak entzun nahi duena entzunez edo faboreak egiten badizkio ba... zein mediku, erizain ona dugun erraten eta oilasko parea eman. Horren borontatea! Eta aldiz, hasarre entzuten badigu, inongo explikaziorik gabe bidali eta... beno horrek ez du komentariorik ere merezi. Denoi gustatzen bait zaigu pertsonak bezala tratatuak izatea.



Baina, ez bata eta ez bestea, sanitarioen lana herriaren zerbitzu bat denez, herriaren eskubide bat delako dohaina izan behar du, ongi antolatua, planifikatua, ongi egina eta zuzena gainera.

Lana horrela egitea, ez dakigu zer den ere. Zeren eta herri hauetan, sanitario ona, txarra, gustukoa edo ez gustukoa izan arren hortxe bait dugu, insekula sekulorum horrek bueltarik ez balu bezala.

Udalak berriz, inoiz ez dira serbitzu horretaz arduratu. Nola? Zertarako? Nola erran mediku bati jendea ez dagoela bere jokaerarekin kontent? Nola erran ez duela behar bezala lana egiten? Ze bera, sanitarioa, profesionala izan arren, ba beno, gauzak ongi explikatuz gero, eta arrazoiez edozeinek uler bait diezaioke. Baina, jendeak beti beldur izan du, medikuari, erizainari egiak botatzeko bildur, zeren eta gero bera eritzen denean behar bada ez bait dio ongi atendituko eta baezpada ere ixilik.

Udal gehienak berriz, ez dute inoiz herriaren interesen alde jokatu. Bitartean berriz, sanitarioek, nahi dutena egin dute gehienetan aberastu besterik ez.

Eta, udalen eskutan horrelako errespontsabilitatea egotea ba.. gehiegizkoa izan

da nonbait. Noski, aurrekontuaren erdia baino gehiago sanitarioen soldatetan joatean bait zen eta hortik inongo fruiturik ez jasoz gero, pentsa!

1.986 urtean Nafarro mailan, PSOEk bere Erreforma Sanitarioa daramaki. Iadanik aldaketa batzuk nabarmentzen dira. Horietako bat udalei dagokiona da. Orain arteean sanitario gauzetan Udalek bere autonomia zuten. Botere bat zuten, baina botere hori ez dute jakin behar bezala erabiltzen hori ere egia da. Eta orain, botere hori galtzen dute Iruinean zentralizatzeko. Diputazioaren eskutan gelditu z hasiera batean eta gero behar bada Insalud-enetan gelditu ko da.

Dakigunez, Orkoiengo udala da galpen honetaz arduratu den udal bakarra. Heurek botere horri bere garrantzia eta erabilera egokia ematen bait zioten. Herriak, herritarrek behar dituzten zerbitzuak eraikiz eta eskeiniz.

Herriaren osasuneaz, herritarren osasunetaz arduratzea denon lana da, baina, batez ere, politikoak, gobernuak, udalak neurriak paratu behar dituzte, hain zuzen ere herritarrok osasunean bizi gaitezen.

Baina, herri gehienetako udalei botere hori kendu diotela eta pisu bat kendu baliote bezala gelditu dira. Hara nolako herri ordezkariak ditugun! Besteen menpean egoteak lasaitu egiten bait dira.

Eta, PSOEk bere politika sanitarioan zera dio, garrantzitsua dela herriak parte hartzea osasun Plangintza honetan. Eta asmo horrekin Osasun Kontseiluak egitea aholkatzen du. Kontseilu horretan, sanitarioak, sindikato, elkarte, eskola, udal, erakundetako ordezkariak parte hartuko lukete, baita enpresario batek edo bestek (enpresarioen ordez, etxeko andreak izaten ahal ziren ezta?).

Baina, zertarako parte hartu ez badu Kontseilu horrek erabakirik hartzeko aukerarik?.

Gure herrietako arazoak, kezkak, premiazko gauzak guk geuk ezagutu nahi eta behar ditugu. Guk jakin behar dugu zein diren eginbehar garrantzitsuenak. Udalei kendutako boterea herritarren eskutan egon behar luke, horrela bai parte hartuko genukeela.

Gure herriaren osasuna bizkortzeko era bat hauxe da: problemak ezagutu ondoren irtenbideak bilatzea, erabakiak hartzea eta hortan arituz gaizki egindako gauzak analizatu eta ongi egiten saiatzea. Herriaren nortasuna aberastea, indartzea ere OSASUNA bait da.

A.Z.



VENITE ADOREMUS

BERRIZ ERE SORGINAK ZUGARRAMURDIN?

Ez, ez ikaratu. Orain arte bakarrik dakigu gauza arraro batzuk pasatzen direla herrian. Gure aintzinekoek esaten zuten bezala, iluntasuna pausatzen delarik gauzak ez dire garbiki ikusten ahal: katu bat ikusten duzun lekuan, sorgina iduritzen ahal zaizu; eta bestaldera berdin: ez zaitela behin ere katu batez fidatu, sorgin bat izaten ahal delako. Horrengatik,guk, dakiguna bakarrik esanen dugu, eta gero bakoitzak pentsa dezala nahi duena.

Afera hau hasi zen duela hilabete batzuk, joan den udazkenean, pittat gora bera. Jende batzuk hasi ziren esaten:

Bai, ez dakit zer edo nor ibili den joan den gau hontan. Lehenbizi aditzen ziren asotsa edo kantu zahar batzuk bezala, eta gero ia animaleko burrunba karrika goiti eta behiti.

"Bai, bai, nik ere sumatu ditut kantu eta uihu hoiek, eta gero nik uste kotxe bat ote zen bozina astopito batekin burrunbaka zebilena".

Eta mugimendu misterioso hauek berdin segitu zuten beste gau batzuz ere.

Gero, hasi ziren gauzak animatzen gehiago. Aldi batez, ilunabarrean, herrian deus besta edo gertakizunik gabe hasi ziren tiro haundi batzuk aditzen; batzuk esaten zuten koheteak zirela, beste batzuk, ezetz, haiek segur, segur, deabruaren puzkerrak zirela... ez dakigu ... Ala ere bat baina gehiagoek esan digute gau batez ikusi dituztela heriko plazan pertsonaje batzuk desfile militarra edo zerbait horrelakoa egiten, "jarp, bat, bi, hiru ! " bat bestearen ondotik.

Eguberrietan suertatu zen bertze gertaera bat ere . Herriko fidagarri lagun batek kontatu digu nola bera goizeko bi ordutan etxera heldu zelarik, aditu zituen kantu eta beste soinu arraro batzuk. Begiratu zuen karrika behiti eta handik heldu omen ziren bost edo sei lagun: haietatik bi zaldi baten gainean; batzuk hile luzea omen zuten, bertze batzuk zerbait aurpegian emana ez ezagutzeko moduan eta batek iduri omen zuen "Cid Campeador", armadura gisako zerbait zeramalako; zaldiak berriz, izanen omen zituen zintzilika hamar gare seurik halako soindua sartzen zuen eta. Kortejo guzti hau heldu zen karrika goiti, zaldia bere bi jineteekin aintzinean eta beste guztiak hekin gibeletik, eta denak "Venite Adoremus" ... kantatzen. Azkenean Teletxeko gorapean gelditu ziren, hàn argia piztuta, batek esan omen zuen :
"ian, jautsi dezagun lehenik Niño Jesus"
orduan, guri hixtorio hau kontatu digun pertsona izitu omen zen, eta aire, deus gehiago ikusi nahi gabe partitu zen etxera.

Eujeñi eta Koxemari izituak dire baita ere, zeren gau batez atzarri ziren solas eta musika batzuekin. Lehio ixkinetik begiratu eta ikusi zituzten bost-sei lagun, neska eta mutiko, bere etxearen atarian kantatzen, eta haietarik batek pregonatzen omen zuen uhiuka:

Erosi, erosi ezazue Lurdesesko Ama Birjiñaren eskapularioak.."

Baina Eujeñik eta koxemarik ez zuten aterik edeki pentsatuz Lurdeseko Ama Birjiñaren eskapularioak egunaz saltzen direla izatekotan, eta gauaz hola ibiltzen den jendea, bertze jende klase izanen dela.

Esan behar dugu baita ere, duela laurehun urte, gure sorgin zaharren denboretan, esaten zuten haiek etxetan sartzen zirela tximinitik behiti. Bon, orain, garai moderno hauetan, iduri du teknika hauek aldatu direla, zeren tximinitik sartu beharrean, orain telefonoaren bidez sartzen omen dire. Bai, bai, hala da. Bat baina gehiagok errezibitu dute gauaren erdian dei bat, ez omen da izitzeko gauza, bainahala ere...

Lehenbizian esan dugun bezala, guk ez degu deus segur esan nahi, baina badakigu lehengo sorgin zaharren ondoan (Barretxeko Graziana, Sansineko Joanes, Goiburuko Miguel...) orain ere hasi direla izen batzuk aditzen (Andres Barrantx, Iñaki Sansin, Pedrit Beretxe, Daniel Bordakotx, Txutxu Iruin, Axun Martines..)

Zugarramurdi, 1986ren Maiatza.

AMATASUNARAKO

AHOLKUAK

1.- Haurdunaldiaren lehen seinuak nabaritu bezain laister, medikuarengana joan zaitez. Lehenengo azterketa egin ondoren, kontrolak egiten jarraituko da hurrengo hilabetetan. Medikuaren aholkuari kaso egin eta ez ezau hartu inoiz ere medikamenturik bere baimenik gabe.

2.- Haurdunaldian egunero garbitasuna egokia egitea behar beharrezkoa da. Arreta handiz garbi zaitez.

3.- Hortzak ere garbi itzazu.
Zure hortzak kontrolatzeko dentistarengana joatea garrantzitsua da.

4.- Bularrak garbiak mantendu behar dira, ur irakinez garbituz.

5.- Haurdun egotea ez da eritasun bat. Bizimodu lasaia eraman ezazu. Zure etxea garbia eduki ezazu, baina sobera behartu gabe. Ez egin lan gogorrik ezta bidai luze eta neketsurik ere. Arratsaldeko ordu beroenak probetxa itzazu atsedena egiteko. Gauaz garaiz oheratu zaitez loa beharrezkoa duzu eta.

6.- Jantzi ezazu soineko lasuak eta oinetako egokiak. Egunero ibilaldi bat egin ezazu. Ez ibili pisu handirik.

7.- Eritasun batzuk arriskugarriak izan daitezke zuretzat. Kutsatzen ahal zaitun eria ez ezazu bisitatu.

8.- Ama izan behar duenak ongi elikatu behar du. Zure osasunerako eta zure haurrarendako egunero 3 otordu egin ezazu ordu berean. Janariak era anitzetakoak eta elikagai naturalez prestatuak izan behar dute.

9.- Zure elikadurak osasuntsua eta orekatua izan behar du. Egunean behin bederen, haragia, hegaztia edo arraina, arraultzak eta esnekiak jan behar dituzu. Elikagai guzti hauek premiazko proteina anitz dute. Osa itzazu zure otorduak zereal edo lekaduna, berdura freskua eta frutekin.
Esnea, ur garbia edo fruta ura edan ezazu. Kafe edo te piska bat har dezakezu, baina ez edan alkohol edaririk.
Ahal den eta espezie gutxienak erabili; haragia eta arraina errea jan, (frijitu gauza zaila baita lixeriketako). Zure janariei olio pixka bat edo gurina ematen ahal diezu gustu gehixeago izan dezaten.

10.- Haurrari otarrea prestatu iezaiozu: haurrohialak, barrengolastiko leunak, kotoiezko galtzak, eta beharrezkoa ikusiz gero artilezko jantzi bat edo beste. Txano bat, adurzapi bat edo beste, oinetakoak. (klimaren arabera).

11.- Haurrak bakarrik bere seaskan lo egin behar du. Seaskaren barnean, koltxoi plano bat paratu eta kautxu eta franelazko ehun bateaz estali. Gero azpiko eta gaineko maindireak paratzen dira eta horien ertzak koltxoiaren azpian sartzen dira. Burusi bat edo beste eduki behar da, baita eltxosarea ere.

12.- Ahal izanez gero amatasunerako prestaketan parte har ezazu. Ama izateko ordurako gauza gehienak prestatua eduki itzazu barne-arropa, soinekoak, txukuntasuneko artikuluak.
Lehen minak agertu bezain laister amategira joan zaitez.

A.Z.



12

Baziren aspaldian, haur batzuk eta talde bat egitea erabaki zuten. Haur haiek ez ziren besteak bezalakoak, ez ziren eskolara joaten eta umezurtzak ziren. Taldea egin ondoren nola ez zuten izenik, banatzen hasi ziren.

Lehenengoa Xabier, bigarrenak Jon, hirugarrenak Pepe, laugarrenak Ainhoa eta bostgarrena Iziar eta kapitaina Xabier zen, Iziarrek gauza bat pentsatu eta esan zuen:

- Lehenengo gauza ama eta aita izatea da.

Eta segiduan amak eta aitak bilatu zituzten. Ondoren lagun gehiago egin zituzten, eskolera joaten ziren, etxea bazuten eta jostailuak ere bai.

Egun batetan gauza harrigarri bat gertatu zen, Ainhoaren ama hil egin zen eta dena lehen bezala gelditu zen. Baina, haur haiek buru ona bait zuten, beste andere bat hartu zuten Ainhoarentzat.

Egun batez haur egalari bat agertu zen, haur Espiritua zen eta neska gainera, gero galdetu zien:

- Zuek nor zarete? Ni haur espiritua naiz.

Haur denek harrituta geratu ziren baina kapitaina Xabier, denetan burutsuena eta argitsuena zenak galdetu zion:

- Nor zara zu? Gu haur talde bat gara.

Eta haur espirituak esan zion:

- Lehenago esan dizudan bezala, ni haur espiritua naiz.

Bueno, dena bare-bare zegoenean heuren bihotzetan, alaitasun berezi bat agertu zen eta handik aurrera haur eta ume onak izanik, handitzen eta handitze joan ziren eta etxetik alde egiteko garaia ailegatu zen, alegia, dirua irabazteko garaia.

Atera ziren etxetik eta aita eta amak utzi egin zituzten, pena ematen zien baina horrela zen. Gero egun hotzak ailegatu zirenean denak desagertu ziren eta handik aurrera ez dugu haien gorputzik eta hezurrik ikusi.

Mertxe Mariezkurrena
Doneztebeko, Eskola 5. maila



Nafarroako Bertsolari Txapelketa

Finala Donezteben jokatu zen eta bertsolari hauek hartu zuten parte: J. F. Ar-

NAFARROAKO BERTSOLARI TXAPELKETA

Finala Donezteben jokatu zen eta bertsolari hauek hartu zuten parte: J. F. Arginarena, J.M. Argiñarena, M. Taberna, B. Azpillaga, J.P. Mendiburu, T. Ezponda, M. Aire "Xalbador" eta E. Alkat.

Bertsolari hauek maila onean aritu ziren, Txapela berriz, J.F. Argiñarenak eraman zuen.

Hara hemen Jon Sarasuak Nafarroako bertsolariei eskeintzen dien bertsoak:

● *NAFARROAKO BERTSOLARITZARI*

Jon Sarasua

1.

Bertsolaritza hartzen ari da
indarra eta kemena
ba da toki bat olatu hori
harrapatu nahi duena
sorta honetan aipatu nahi dut
Nafarroaren izena
besteekin bat gure jolasa
berrindartzen ari dena

2.

Bertsotarako zaletasuna
urte askotan eutsia
txapelketaren ohiartzun honek
badu bere garrantzia
bada txapel bat urterik urte
trebeenari utzia
aurtengo urtez ohore handiz
Argiñarenak jantzia

3.

Txapeldun dena ez da txaloa
merezi duen bakarra
denen artean osatzen baita
landarearen zuztarra
urtero gorde egin dezute
beharrezko den sugarra
hor ikusten da lurralde hortan
bertsoak duen indarra



4.

Kanpo giroak ez direnean
komeni bezin zuzenak
atera behar izaten dira
ahaleginik handienak
horrela landu bait dituzue
zuen gogo-ahalmenak
nere partetik har itzazue
zorionik beroenak

5.

Nafarrek eta
Baxenafarrek
jarri dute oinarria
batasunean joan ditezen
bertsoa eta herria
bertsolaritzan elkar hartuaz
hortxe daukate jarria
hegoaldea iparrarekin
lotzen duen lokarria

6.

Tamalez, hemen bota ezkero
ingurura begirada
gure herrian suma liteke
erdal joeran bolada
halere zuek segi ematen
kultura honi bultzada
bertsoa ere biziko baita
euskara salbatzen bada.



Aingeru Beltza



Mendian nabil bakarrik.
Ez dut oinkatzen nik nahi haina,
baina hala ere, pake eder hau
beharrezkoa dut tarteka.
Benetan, mendia dut maite.

Goitik behera noa eta....
zer edo nor ikusten dut erreka bazterrean...
hurbildu naiz eta.. neska lirain eder bat,
enbor batean eserita nere aurrean.
Begiratu dut eta keinu ttiki bat
bidali dit, irri egiten duelarik.

Ondoan eseritzen naizen bitartean,
ikusi ditut, baina zer ikusi dut...
ze begiak, nahiko mutur beltza, baina ze neska...

Iluntzea doa eta zutik gaudela,
eskuak elkarturik, herrira inguratzen hasi gara.
Nik mendia dut maite. Nola ez ba, hemen
bakardadearen poza berezia nabari da eta.
Baina nola bakardadea, horrelako aingeruak direlarik?

Mendia maite dudanez, bertan sortutako
aingerua nola ez?.
Zein erreza den horrelako
aingerua maitatzea...

Bizkarreko minez eta hotzez ernatu naiz eta...
arraioa, nun dago nere aingeru zoragarria?
M m m m... amets egin dut, baina ametsetan
nagoela, ez ote naiz bizi?.

Bai bai bai... zalantzarik gabe bizi naizela,
eta nolako bizia gainera.
Esker mila, nere mendi maitea...
Gorde zaidazu nere aingeru zoragarria.

Lotsati


NUKLEAR KAKONTZIAK
Chernobyl 1986
Harrisburg 1984
Atomoak omen du azkarki indarra Hirosiman hil zuen jende barra barra, gero nahi zuten horiek ezpainetan parra ainestarazi guri ez dela hain txarra, ta alde guztietan saldu zentral nuklearra.
Lemoizen izan balitz eskape zakarra pentsa ezazue zenbat hil nolako negarra, baratz emankorrena eremu iharra dena pozoiturikan esne ta belarra. INDAR BERRI HORI BAINO HOBE KAKA ZAHARRA!!!
BILBO 10 Km
SPANISH CONTRA...
TXOTARRA MADE IN USA
DONOSTI 60 Km
LEMOIZ
ITXITA
Hipia
TIR TIR
GEIGER



125 pzta.

"Paulo"

Imprime Grupo: D.L. M.A. 1204/95